

kultura

film laburren zirkuitua

tortura

unai romano

GEU

2 €

2006ko martxoa

159

gizartea

gasteiz. martxoak 3.
30. urteurrena

musika

ken zazpi: eñaut elorrieta
entzun! aldizkaria
las vulpes



martxoak 8



harpidedunentzako oharra

2006ko harpidetza kuota martxoaren bukaera eta apirilaren hasiera artean pasako zaizue. aurtengo kuota 20 eurokoa izango da.

2003tik ez da kuota igoerarik egon. orduetik aldizkariak aldaketa eta berrikuntza nabariak bizi izan ditu, horien artean iazko diseinu eta egitura aldaketa, salgai jartzea, eta ondorioz euskal herri osora zabaltzea. hau dela eta, ezinbestekotzat jo dugu igoera hau.

mila esker, aldizkariko batzordea

GEU




Elena Irureta, aktorea

Aintzat hartu

Begiraiozu Bai Euskarari Ziurtagiriari

SUMARIOA159



zeregin 4
martxoko agenda

iritzia 7
entzun euskaldunon hizkuntza
komunitatearen ahotsa!!

geupertsonaia 8
emakumea. martxoak 8

euskaltasunean. txina 11
chih-hsin yeh

orribatean 12
film laburrak geu-ren eskutik

kaletik / idazleenzutabea 13
moda / xabier olaso

geugaia 15
gasteiz. martxoak 3. 30. urteurrena

batbitan 18
ken zazpi. eñaut elorrieta

artetxokoa 20
isabel fdz. de arroyabe, disenatzailea

proposamenak
haur & gazte literatura 22
cd-a & liburua / txabi arnal

lauhitzetan 23
d eredua / beste

batbitan 24
entzun! aldizkariak 10 urte

bidaia / errezeta 26
gasteiz-londres / bildots noissete-a

arababixotzian / historiazutabea 27
cristina fernandez / erlantz urtasun

batbitan 28
las vulpes

batbitan 30
tortura: unai romano

umorea 32
iñigo sarasola


geu elkarte 33
kultur eskaintza

historia (teuskara) 34
martxoak 3, data bat baino
zerbait gehiago (koldo ortiz de ginea)

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Laguntzaileak:



1

ERAKUSKETA: JULIO VERNE, IRUDIMENETIK ERREALITATERA

> martxoaren 21 arte, ignacio aldekoa kultur etxean
informazioa: 945181944 / ikus. 5. orr



3

MARTXOAK 3. 1976

> manifestazioa. 19:00etan
> lluis llach-en kontzertua.
21:00etan, gasteizko buesa arena-n

4

IKUSKIZUNA: HARTZA IGUZKI

> ihauteien inguruko folklore & musika & dantza ikuskizuna amurrio antzokian, 19:00etan (10 euro)
www.amurrio.org

4

EUSKARAZKO LANTEGIAK: AFRIKAR DANTZAK

> martxoak 4, 11, 18 eta 25 izenemate bidezkoa (jarduera hasi arteko epea-21:00ak arte) gasteizko aldabe gizarte-etxean, 22:00-24:00
www.gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009

5

FAMILIARENTZAKO ANTZERKIA: GROAU (hika teatroa)

> gasteizko principal antzokian, 18:00etan
4 urtetik gorako umeentzat
sarrerak: 6 euro
kultur plangintza eta programazio zerbitzuak / www.vitoria-gasteiz.org/teatros

8

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN EGUNA

> ikus. 10. orrialdeko egitaraua

10

EUSKARAZKO LANTEGIAK: ESPELEOLOGIA EUSKARAZ

> martxoak 10 eta 11 (teoria eta praktika, hurrenez hurren) izenemate bidezkoa (jarduera hasi arteko epea-21:00ak arte) gasteizko aldabe gizarte-etxean, 22:00-24:00 eta 22:00-02:00 (hurrenez hurren)
www.gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009

12

ERAKUSKETA: 'URDAIBAI, BIOSFERA IRUDIAK'

(joseba del villar)
> martxoaren 12ra arte, gasteizko olarizuko etxaldean
informazioa: 010



15

FILM LABURREN EMANALDIA:

txotx, sarabe, haragia, hauspo soinu, 40 ezetz
> gasteizko hikaatenean (pintore kalea, 13), 20:00etan
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

17

IKA EUSKALTEGIETAKO UDABERRIKO JAIA

> egun osoz. ikus. 5. orrialdea
egitaraua: txokolate-jana gasteizko 3 euskaltegietan goizez, diorama mendiala herrian, tarta-txapelketa euskaltegietan arratsalde, diorama gasteizko aldabe gizarte etxean (irekia), barrikote eta patata tortilla txapelketa.
www.ika.net

17

KONTZERTUAK: SAGARRON-DOTIK

> martxoak 17 eta 18, herna-nin, 21:00etan
tch, sorkun, loquillo y trogloditas, chambao, o'funk'illo / morodo, berri txarrak, celtas cortos, living colour eta betagarri
www.sagarrondotik.com

17

KONTZERTUAK: SPKTRO JAIALDIA

> martxoak 17 eta 18, gasteizko hell dorado aretoan, 21:00etan
egitaraua & informazioa: ikus. 5 orrialdea
www.kromlech.org

18

KONTZERTUA: PELLO RAMIREZ: 'HAIZE OIHALAK'

> akordeoia, biolontxelo eta pianoa
harresi aretoan, 20:00etan (9 euro)
www.cuadrillassalvatierra.com



19

MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06

> peñablanca, trekua (1265 m), leziza (1350 m)
egun osoko ibilaldia
arduraduna: Joseba
945200973
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



19

FAMILIARENTZAKO ANTZERKIA: CANTERVILLEKO MAMUAK OSCAR WILDE

(hankatxo produkzioak)
> gasteizko principal antzokian, 18:00etan
5 urtetik gorako umeentzat
sarrerak: 6 euro
kultur plangintza eta programazio zerbitzuak / www.vitoria-gasteiz.org/teatros

21

KULTUR ERROTA: DIAPORAMA:

nairobitarra, milioi bat km lur azaletik (josu iztueta)
> gasteizko parral tabernan, 20:30ean
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

24


KONTZERTUA (AKUSTIKOA): KEN ZAZPI: 'GELDITU DENBORA'

> principal antzokian, 20:30ean
sarrera: 12 euro (besaulkia) / 6 euro (1.-2. anfiteatroak) / 30 urte baino gutxiago: %50ko deskontua
geu elkarte & gauekoak
www.geugasteiz.com / www.gauekoak.com (kolore biziak elkarte: 945204009)

30

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06

> liburua: primo levi, sistema periodikoa, alberdania 1998 (1975)
dinamizatzailea: iban zaldia
hikaatenean (pintore kalea, 13), 20:00etan
>> maiatzean mintzagai izango den liburua:
xabier montoia, 'hilen bizimoldea' trilogia: hezur gabeko hilak, blackout eta elektrika, susa 1999 eta 2004
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



31

EUSKARAZKO LANTEGIAK: KAYAK ZEHARKALDIA

> martxoak 31 eta apirilak 1 (teoria eta praktika, hurrenez hurren) izenemate bidezkoa (jarduera hasi arteko epea-21:00ak arte) gasteizko aldabe gizarte-etxean, 22:00-02:00
www.gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009

spkro jaialdia

martxoak 17/18an, gasteizko hell dorado aretoan (www.helldorado.net)

kromlech kultur elkartearen eskutik

kromlech kultur elkarte

>jarduera: kontzertuen bidez eszena elektronikoa alternatiboak (ebm, futurepop, elektrodark, industrial) bultzatzen saiatzea da
>azken urte hauetan gasteizen hell dorado kontzertu aretoan eszena hauetariko talde internazionalenak ekarri ditugu (hocico, qntal, gren-del...).

>tamalez, estilo musikal alternatibo hauek oraindik ez dira oso ezagunak euskadi mailan eta beraien antolakuntzak ahalegin handia dakar: www.kromlech.org

>egitaraua

>>martxoak 17, ostirala:

alemaniako une honetako bi talde hoberenetariokoa:
-sero.overdose (future pop), depeche moden estiloan
-agonoize electrodark boteretsua, bat baino gehiago zoratu eta saltoak ematen jarriko dutenak.

>>martxoak 18, larunbata:

bi talde frantziar:

-tamtrum, etorkizun izugarritzko gaztea, elektrodark errukigabea eta birginala egiten dute agerraldi boteretsu batekin.

-punish yourself, banda ezaguna bere rock&roll cyberpunk elektronikoa, ahaztu ezinezko zuzeneko batekin, neoiak, gorpu bihurrituak, argiak, hesi metalikoak, performanceak... vitoria-gasteizerako lujo izugarria.. horrez gain:

-ostiraleko afterparty dj-chris l.ekin, agonoizeko abeslaria + dj-s kromlech

-larunbateko afterparty dj-vx69.ekin, punish yourselfko abeslaria + dj-s kromlech, eszenako musika spektral hoberenarekin.

sarrerak

ostirala: 15 euro aurretik / 18 euro leihatilan

larunbata: 15 euro aurretik / 18 euro leihatilan

2 egunerako abonoa: 25 euro aurretik / 30 euro leihatilan

salmenta tokiak

gasteiz: disco-bar troner; tipo denda.

bilbo: darkold taberna
donostia: donosti-rock
salmenta on line: blnk@euskalnet.net



gasteizko ika euskaltegietako udaberriko jaia

>honakoa da egitaraua

-goizeko 9:00etan: hiru euskaltegietan txokolate-jana.

-10:30ean: mendiako 'etxe zahar' herriko etxean iker ciriza-k 'asiatik barrena ibiltari' diaporama emanaldia aurkeztuko du ikasle guztientzat.

-arratsaldeko 14:00etan: hiru euskaltegietan tarta txapelketa izango da eta onenak sari ederra izango du.

-arratsaldeko 18:00etan: berriz ere iker ciriza-k asiatik barrena egindako bidaiaz egingo du berba irudiak lagun, 'asiatik barrena ibiltari'. aldabe gizarte-etxean izango da oraingo honetan eta emanaldia ikusi gura duten guztiak joan daitezke.

-gaueko 20:30ean hiru euskaltegietan barrikotea eta pata tortilla txapelketa. udaberri on!

'sagarrondotik 06' musika jaialdiaren laugarren edizioa

aurtengoak ere jaialdiaren hasierako izaera gordetzen du, antolatzaileek adierazi bezala: "kolore aniztasuna, jende anitzarentzat", horrela, chambao, berri txarrak, sorkun, morodo edo celtas cortos taldeek joko dute hernanin, besteak beste.

hitzordua, martxoaren 17, 18 eta 19an.

>egitaraua:

>>martxoak 17, 21:00etan> chambao, thc, sorkun, loquillo y trogloditas eta o'funk'illo.

>>martxoak 18, 21:00etan> morodo & ranking soldiers, berri txarrak, celtas cortos (jesus cufuentes-ekin), betagarri eta living colour.

hernanin.



erakusketa: 'urdaibai, biosfera irudiak'. joseba del villar

erakusketa honek joseba del villarrek urdaibaiko biosferan jasotako irudien artekin onenak bildu ditu. erakusketak iaz doñanan hasitako ibilbideari



jarraitu nahi dio, munduan dauden ramsar hezeguneak gasteiztarrei ezagutarazteko; hauen artean salburuko urmaelak ere badaude sartuta. 'urdaibai, biosfera irudiak' ekimenak espazio honetako paisaia, fauna, landaredia eta ondare historikoa erakutsiko ditu.

martxoaren 12ra arte, gasteizko olarizuko etxaldean

julio verne, irudimenetik errealitatera

erakusketa honek literaturaren klasiko baten alderdi esanguratsuenak azaltzen ditu eta bera inspiratu zuten zientzia eta teknologia gaietara hurbiltzen gaitu: haren bizitza, haren lana, aro historikoa, pertsonaia garaikideak, zientziarekiko lotura, jakingurak. erakusketa nork bere kabuz ikus dezake, baina bisita gidatuak egiteko aukera ere badago (bisita antzetzua, julio vernek berak emanda). parte hartzen duen talde bakoitzari julio verneren 5 liburu emango zaizkio ikasgelako. 945-181944. martxoak 1-21, gasteizko ignacio aldekoa kultur etxean



kontzertua > pello ramirez: 'haize oihalak'

-akordea eta biolontxelo: pello ramirez

-piano: juantxo zeberio

-biolontxelo: maider zapirain eta juan joxe erauskin

pello ramirez, sormenerako zein interpretaziorako bere dohaiarekin, zuzenean bihotzera iristen zaizkigun sentsazio eta emozioak, espresibitate liluragarri bidaltzen dizkigu. ordubeteko kontzertu akustiko laztangarria, 14 piezaz osaturik. pello ramirezen bakarkako lehen lana dugu, eskarmentu handiko musikari baten emaitza: benito lertxundi, xabier lete, dulce pontes, ken zapi, mikel urdangarin, niko etxart, eta abarrekin jotzen aritu da. martxoak 18, 20:00etan (9 euro), aguraingo harresi aretoan



ENTZUN EUSKALDUNON HIZKUNTZA KOMUNITATEAREN AHOTSA!!

Elkarteek, oro har, funtsezko eginkizun demokratikoa betetzen dute gizartean. Europako Gobernantzari buruzko Liburu Zuriaren funtsezko mezueta bat da elkarteak gizartearen oinarrietako bat direla eta ordezkatzan dituzten taldeen ahotsa direla. Euskara elkarten kasuan entzuten den ahotsa askozaz ozenagoa da, HIZKUNTZA KOMUNITATE BATEN AHOTSA baita.

Hizkuntza bat mundua ulertzeko modu bat da, aniztasunaren adierazle bat. Hizkuntzalari gehienek ustez 6.000 hizkuntza inguru mintzatzen dira gaur egun munduan. Hizkuntzen aniztasuna, ikuspuntu eta ikusmolde aniztasuna, balore den heinean, eta euskararen jasagarritasunaren kasu konkretuan, euskara elkarten papera oso garrantzitsua da.

Hala ere, hizkuntzaren normalizazioa edota biziberritzea iristen bada, EZ da BAKARRIK euskara elkarten lanari esker iritsiko. Prozesu horretan erakunde publikoek ere eragile izan behar dute. Erakunde horien arteko HARREMANA optimizatzea nahitaezkoa da helburu hori, normalizazioarena edo biziberritzearena, bete nahi bada.

Gizarte erakunde eta erakunde publikoena arteko harremanetan bi epe ezberdintzen dira eta zenbaiten ustez inflexio puntua Jose Maria Sanchez Carrión, Txepetx, "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren argitalpena eta Arrasate Euskaldundu Dezagun euskara elkartearen sorrera izan ziren.

Ordura arte, 1990eko hamarkadara arte, hizkuntz normalizazioaren eragilean artean atomizazioa zen nagusi, desadostasunak azpimarratzen ziren eta nagusikeria eta aurkakotasuna bilatzen. Azken finean, erakunde publiko eta gizarte erakundearen artean inkomunikazioa gailentzen zen.

Hamarkada hartatik aurrera aldiz, hizkuntz normalizazioa euskararen beharren ikuspegitik lantzen hasi zen. Erakundearen arteko artikulazioari ekin zitzaion. Komunikazio aro berri bat hastear zegoen eta beharrezkoa zen oinarritzko puntu batzuk finkatzea eta elkarlana eta osagarritasuna bilatzea. Euskara elkarteak aro berri horretan sortu ziren. Iruñeko kasuan, beste euskara elkarten helburu oso antzekoak zituen Iruñeko euskaldunon elkartea den Karrikiri Elkartea, 1996an sortu zen.

Hego Euskal Herria bi egitura administratibo nagusitan antolatuta dago, eta 1986ko Foru Legeaz geroztik baita Nafarroa bera hiru hizkuntza eremutan zatituta ere. Aldagai administratibo horrek ere asko eragiten du erakunde publiko eta gizarte erakundearen arteko harremanetan.

Urtarrilaren 18an Nafarroako hainbat elkarte emandako prentsaurrekoan aipatu zen bezala, azken bost urteetan Nafarroako Gobernuak euskara elkartei euskarazko hedabideetarako banatutako diru laguntzetan murrizketa nabarmena izan da eta 2005ean kultur jarduerak antolatze

diru saila desagertu da. Egoera horrek, diru sarrera publikoen segurtasun ezak, euskara elkarten hazkunde eta garapena baldintzatzen du, baita egitasmo askoren bideragarritasuna ere.

Baina zein da euskara elkarteek egiten duten paper garrantzitsua hori? Hainbat hizkuntzalari eta soziolinguistek hizkuntza baten normalizazio edo biziberritzerako hiru aldagai eragin behar direla defendatzen dute: ezagutza, motibazioa eta erabilera. Euskara elkarteek gehien bat azkeneko bietan eragiteko helburua dute.

Euskara elkarteek, alde batetik, haien barne funtzionamenduarekin bazkideen artean hizkuntza ohitura edo dinamika bat sortzen dute eta euskaraz bizitzeko aukera ematen dute, euskaraz bizitzeko aukera (askorentzat ametsa dena) errealitate batean bilakatzen dute. Bestalde, hainbat gizarte esparrutan (kultur jarduerak, aisialdia, gizarte zerbitzuak, komunikabideak, lagunartea...) euskarazko eskaintza luzatzen dute.

Iruñerrian hainbat euskara elkarte daude: aipatutako Karrikiri Elkartea, Atarrabiako Karrikaluzeko elkartea, Biltoki Elkartea edo Zaldiko Maldiko Elkartea. Gaur egun, elkarte horiek guztiak Topagunearen barruan daude, Euskara Elkarten Federazioaren barnean eta haien artean koordinatzeko helburua dute. Askok diru euskara elkarte horiei esker Iruñerrian euskaldunok goza ditzakegun eskaintzak, hurrengoak adibide batzuk besterik ez dira: mintzakide, euskara hutsezko aldizkariak (Karrika Iruñean eta Xuka Atarrabian), merkataritzan euskaraz, haur eta gazteentzako aisialdiko eskaintza (larunblai eta kuadrillategi), euskaldunon arteko pisukide eta lan poltsa zerbitzuak...

Euskara elkarteak euskal komunitatearen ikuspegi eta ikusmoldearen ahotsa dira, aniztasun aberasgarriaren zati baten adierazle. Euskara elkarteak dira hizkuntza komunitatearen partehartzea bermatzen duten erakundeak, jarduera eta egitasmo ezberdinak aurrera eramateko baliabide pertsonalak dituztenak eta egitasmo ezberdinei gizartearen sostengua ematen diotenak. Horiek gabe ezinezkoa litzateke normalizazio prozesu bat.

Erakunde publiko eta pribatuaren artean ELKARLAN ETA OSAGARRITASUNerako bide berriak jorratzea beharrezkoa da. Bide hori da onuragarriena euskararentzat eta, oro har, munduko hizkuntza, kultura eta ikusmolde edo ikuspegi aniztasunarentzat. Nafarroako Gobernuari aipatutako dirulaguntzen murrizketa horiek izan ditzaketen ondorioen erantzule izateko eta, zentzu horretan, euskara elkarteekiko izan beharko lukeen harremana zaintzeko eskatzen diogu. Euskara elkarteak prest gaude egoera guztiak aztertu eta gure hizkuntzaren aldeko irtenbidea elkarrekin aurkitzeko.



Euskara elkarteak euskal komunitatearen ikuspegi eta ikusmoldearen ahotsa dira, aniztasun aberasgarriaren zati baten adierazle

Zure denda erotikoa

SEX



PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

HELADOS



bar • restaurante •



albeniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfnoa: 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kanfoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



eguneko menua

DIBUtec

Paper Bereziak
Arte Ederreterako Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkuesdermozioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamietan Estampaketak

azkarprint

Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA •



EGUR

Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Golain Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@eushalnet.net



eusko alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91 01004



Zure arropa eta oinetakoak

www.sartudenda.com

Kubillieria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL TABERNA

Espevitikan, astoluenetik oinarritua

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERREKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE

Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

EMAKUMEA

[maite lekue]

1960. urteko azaroaren 25ean patria, minerva eta maria teresa miraval, dominikar errepublikakoak, euren senarrak kartzelara bisitatzera zihoazela militarrek bidean gelditu, kainaberaldi batera eraman, eta bertan, torturarik gogor eta bihozgabeena jasan ondoren, hil egin zituzten. emakume hauen omenez, kolonbian 1981. urtean latinoamerikar jardunardi feministetan parte hartu zuen dominikar taldeak egun hori emakumeeiko indarkeriariaren kontrako eguna izendatzea proposatu zuen.

mespretxuak
diskriminazioa

bazterketak
publizitate sexista
maxismoa

unilazioak

erailketak

gutxiespenak

pobrezia

marginalizazioa

inposaketak

irainak

ablazioak

prostituzio sareak

lapidazioak

bigarren mailako pertsonak

aukera desberdintasuna

bortxaketak

kartzela

kontrola

la mate porque era mía
mintzaira baztertzaila:

los ciudadanos

los niños

los médicos...

[arg.: edorta sanz]

MARTXOAK8

gizonek boterea dute emakumeen gainean, Ala-k preferentzia eman dielako batzuei besteen gainetik dituzten ondareengatik. bertutezko emakumeak debozior zaindu behar du, bere senarraren ausentzian, Ala-k agindutakoa. errieta egin zutitu nahi dutenei, ohe gainean utzi eta jo! kasu egiten badizuete bakean utzi!

[al-rijal qawwamun 'ala-n-nisa... 4,34]

nahikoa al da legeak, erakundeak eta ohiturak, iritzi publikoa eta gizarte testuingurua aldatzea gizonak eta emakumeak egiazki berdinak bilakatzeko?

simone de beauvoir

ondorioz, jainkoak evari esan zion: "nik zure sufrimendua areagotuko dut haurdunaldian, zure semeak minez erdituko dituzu. zure nahia zure senarrarena izango da eta berak autoritatea izango du zugar".

[genesis]

ciudad juarez, 400 emakume erailak. 5.000 baino gehiago desagertuak

munduan eraildako emakumeen %70 bere bikote edo bikote ohiak hil du. [amnesty international]

minbizia eta trafiko istripuen gainetik, emakumeek gizonezkoengandik jasaten duten biolentzia lehen heriotza eta ezintasun eragilea da. amnesty international

kaleko garrasiak!
erasorik ez, erantzunik gabe!
erasoen aurka, antolaketa!
epaileak eta legeak konplizeak!
zutik emakumea, hautsi zure kateak!
non daude gure eskubideak!
emakume ez ixildu, erasotzailea salatu!
matxismoak hil egiten gaitu!
kalea eta gaua ere, gureak dira!
guk erditzen dugu, guk erabaki behar dugu!

geupertsonaia

*amak dira eta ez gerlariak, herriak
sortu eta gidatzen dituztenak!*
[serás como la madre tierra. la mujer
india]

*munduko 130 milioi neska sexu-
organoen mutilazioen biktimak dira.*

*orain borrokatzeko garaia da,
praktikan bederen. eta ez gizonen
aurka, gizonekin baizik, sistema
sozial zuzenago baten eraikuntzan.*
[la eva futura, lucia etxebarria]

*emakumeek eta neskatoek munduko
pobreziaren %70 osatzen dute.*

MARTXOAK8

EGITARAUA

DATA	JARDUERA	HIZLARIA	TOKIA	ORDUA	ANTOLATZAILEA
Otsailaren 20tik martxoaren 3ra	"Photoles 05" ARGAZKI ERAKUSKETA		Falerina lorategia MONTEHERMOSO Kulturunea		ENFASIS Udal Zerbitzua
otsailak 24	"Ser o no ser..." ANTZERKIA	Cristina Castillo Aktorea	Falerina lorategia MONTEHERMOSO Kulturunea	20:15.	ENFASIS Udal Zerbitzua
martxoak 2	"Mujeres prostituidas en los 5 continentes" HITZALDIA	Carmen Sarmiento Kazetaria (*)	MONTEHERMOSO Kulturunea	19:30.	GIZARTERAKO Elkarte
martxoak 4	"El amor en los tiempos del colesterol" ANTZERKIA	"Soledad Felloza" Antzerki taldea	ALDABE Antzokia SARRERA 2€	20:00	AYLARABA Elkarte
martxoak 11	"Sótanos de la mujer" POESIA	ANDREAK Antzerki taldea	Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia HEGOALDE Gizartetxea	20:00	ANDREAK Antzerki taldea
martxoak 15	"Cómo enfocar la vida con alegría después de la enfermedad" HITZALDIA	Isabel Cerezo Psikologoa eta terapeuta (*)	MONTEHERMOSO Kulturunea	19:30	ASAMMA Elkarte
martxoak 16	"El feminismo visto por mujeres de dos generaciones" MAHAINGURUA	Victoria Sau Psikologoa eta feminista Fiona Aranguren Amnistia Internazionalaren kidea (*)	MONTEHERMOSO Kulturunea	19:30	MARIA DE MAEZTU Forum Feminista
martxoak 18	"Segundo concurso literario de relato corto" SARI EMATEA	JALGI-SURGIR Elkarte	MONTEHERMOSO Kulturunea	19:30	JALGI-SURGIR Elkarte

(*) Mahainguru eta hitzaldietako edukiak keinuen hizkuntza bidez azalduko dira



CHIH-HSIN YEH:

"Gustatzen zaidalako
hasi nintzen euskara ikasten"

Gurasoak Taiwan eta Txinakoak ditu, hala ere, Chih-Hsin Mallorcan jaio eta Madrilen eta Bilbon bizi ostean, orain dela 25 urte inguru heldu zen Gasteiza. Bertan familiak hiriko lehenengo jatetxe txinatarra zabaldu zuen.

- ✓ 31 urteko gazteak arte ederrak ikasi zituen eta egun argazki diseinatzailea da
- ✓ horrez gain, euskara ikastea erabaki zuen eta jada euskaltegiko 9. urratsean dabil. "gustatzen zaidalako hasi nintzen euskara ikasten", dio
- ✓ zinema, mendia, kirola eta bidaiatzea ditu gustuko, horren adierazle dira argentina, txina, aeb eta europar zehar egindako bidaiak.

... Bertute bat?

Akaso eskuzabala naizela.

... Zer eskatzen diozu bizitzari?

Zoriontasuna eta ahalik eta gutxien sufritzea.

... Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak.

... GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?

Bai, ezagutu bai, euskaltegian irakurri ohi dut.

... Egunkari bat?

Normalean El Correo irakurtzen dut, bere diseinua gustatzen zait.

... Telebista saio bat?

Azken boladan ez dut telebista asko ikusten, baina 'Vientos de Agua' telesaila asko gustatu zitzaidan.

... Filmik gustukoena?

Asko gustatzen zait zinema eta zaila da bakarra aukeratzea, baina bat aukeratzekotan Francis Ford Coppolaren 'Erase una vez America'.

... Jaki gozoren bat?

Nire aitak egiten zuen toffu-a.

... Fobiarik, beldurrik?

Heriotzak beldurtzen nau, besteena batez ere.

... Oporrak non eta zertarako?

Nire ametsa Australiara joatea da. Bestetik, oporrak behar-beharrezkoak direla uste dut, eguneroko bizitzarekin deskonektatzeko batez ere.

... Eta nora ez zinateke joango?

Hondartza ez zait gehiegi gustatzen, beraz nahiago dut mendira joatea.

... Liburu bat?

'Omamori', Richard McGill-ena.

... Kolore bat?

Urdina.

... Musika gustukoena?

Alicia Keys dut gustuko, baina orokorrean esanda, musika lasaia atsegin dut.

... Zer da Gasteizek duen onena?

Parkeak eta gizarte-etxeak.

...Eta txarrena?

Ez daudela kultur ekintza gehiegi.

... Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Baietz uste dut.

... Amesgaizto bat?

Esan bezala heriotza amesgaiztoa da niretzat.

[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

Moda gora, moda behera

Hilaren 12tik 17ra bitartean Modaren Astea izango da Gasteizen. Honi esker, batez ere, ezagutzera eman dira azken urteetan Arabako moda sortzaileak eta euren kalitatezko lanak. Halarik ere, oraindik bidea luzea da. Beti esan den bezala, arabarrok janzkeran nahiko klasikoak omen gara. Modaren inguruko iritziak jasotzeko asmoz kalera atera gara. Hauxe da jasotakoa oraingoa:

1. Moda sortzaile arabarrak ezagutzen al dituzu?
2. Diseinuzko arropa ala komertziala nahiago al duzu? Zergatik?
3. Nolakoa da arabarron janzteko estiloa?



Ainhoa Ferron, arte gidaria

- 1) Ez dut bat ere ezagutzen.
- 2) Arropa komertziala nahiago dut. Merkeagoa da eta gainera denboraldi guztietan alda dezakezu, ez duzu hainbeste diru gastatu behar.
- 3) Ez nuke esango estilo propioa dutenik, baina hitz egingo nuke euskaldun estilo bati buruz. Nire ustez, arabarron estiloa gero eta landuagoa eta politagoa da.

Tere Ugalde, enplegu teknikaria

- 1) Egia esan ez.
- 2) Biak nahastuta. Batzuetan komertziala, merkeagoa delako, baina beste batzuetan diseinuzkoa erostea gustatzen zait. Garestia goa da baina desberdina eta berezia da.
- 3) Nik batez ere Bilbon egiten dut bizitza eta hango estiloarekin konparatuz, Bilbokoa ausartagoa eta dotoreagoa dela esango nuke. Hemengo desberdina da, baina orokorrean esanda, ez gara oso ausartak, nahiko kontserbadoreak gara.



Javier Setien, irakaslea

- 1) Bai, Modesto Lomba.
- 2) Batzuetan diseinuzkoa erosten dut, gehiago gustatzen zait estetika dela eta. Baina batez ere merkealdietan erosten ditut halakoak.
- 3) Nahiko kontserbadorea dela esango nuke. Bi estetika desberdintzen dira; batetik, jantzia eta alkondara daramatzatenak eta bestetik, kamiseta, jaka eta bakeroak daramatzatenak. Baina orokorrean oso tradizionalak gara.



IDAZLEENZUTABEA

AUZIA TELEBISTAK IRABAZI ZUEN

[xabier olaso]



Lehengoan lagun batzuen etxean izan nintzen bisitan, kafetxoa hartu eta hitz-aspertuan. Inguru-minguruan euren semea, Pokémonen pilotatxoaz gora eta behera. Halakoan, braust! Mahai gaineko lorontzia alfonbra gainean triskilatuta ikusteaz batera bekoskoa zimurtu zitzaion aitari eta barru-barrutik demanda jaulki zion: "Bi astez telebista ikusi gabe!". Ama ere biziki atsekabetu eta ipurdikoa eman zion. Sei urteko umeak gogotik ekin zion negarrari, arren eta arren halako zigorrik ez ezartzeko erregutu zion aitari, bere itsulapiko diruaz beste lorontzi bat erosiko zuela agindu zion amari, nahi izatera hurrengo bi asteetan Pokémonen kromorik ez erosteko, baina telebistarik gabe utzi ez, hori ezetz eta ezetz esaten tematu zen onetik aterata. Gurasoek serio asko berretsi zuten: "Bi astez telebista ikusi ez!". Mutikoak gurasoen esanetara makurtu nahi ez. Horretantxe gelditu zen auzi-mauzia kafea hartuta etxetik irten nintzenean.

Astebeteren bueltan nire lagunaren urtemuga izan zen eta, gizalegekoa denez, zoriontzeko deitu nion. Oparirik jaso ote zuen galdetu nion eta berak baietz, alkandora, etxeko zapatilak eta lorontzi bat. Lorontzia aipatu orduko mutikoaren kasketa akorduan izan nuen. Telebistarik ikusi gabe astebete igarota zer moduz ote zebilen galdetu nion, jakin-minez nengoen. Berak -lotsatu samarturik sumatu nuen- ezarritako zigorra berraztertu beharrean aurkitu zirela aitortu zidan, lanetik bueltan ez baitzien ume arraiok pakerik ematen. Finean, telebista piztea galarazi ez, bere itsulapiko diruaz lorontzi berria erosarazi eta bi astez Pokémonen kromorik ez erostea deliberatu zuten. Solastatu bitartean, telefonoaz bestaldetik zetorren Shin Chanen melodia aditu nuen.

GEU elkarteak EUSKARAZKO FILM LABURREN I. emanaldia antolatu du martxoaren 15ean hikaateneoan, 20:00etan

Geu Elkarteak, Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren Kultura Sailaren bitartez, Euskarazko Film Laburren emanaldia antolatu du lehenegoz Gasteizen (Topagunearen 3. edizioa da). Guztira azkenengo urteetan Euskal Herrian ekoiztutako sei zuzendariren metraje laburreko bost film ikusgai izango dira, horien artean, Telmo Esnal eta Asier Altuna zuzendari saritu berrien bi lanak. Film Laburren Zirkuituak orora Hego Euskal Herriko 20 herri hartzen ditu, martxoaren 2tik apirilaren 12ra bitartean. Filmak proiektatu eta gero, emanaldi gehienetan zuzendari bat egongo da, ikusleen galderak erantzun eta euren iritzia konpartitze-ko. Horrela, zinegile eta ikusleek elkar ezagutzeko aukera izango dute.



1.- TXOTX (1998)



ASIER ALTUNA. Zuzendaritza, gidoigintza eta ekoizpena lantzeko hainbat tailerretan aritu da, Caracas, Gasteiz, Donostia, Kuba... Hainbat jaialditan saritutako Topeka idatzi, zuzendu eta ekoizten du 2002. urtean.

TELMO ESNAL. Telmo Esnal zine eta telebistan teknikaria izan da. Altunarekin batera, 1997an Euskadiko Filmategiaren Metraje Laburreko Film Hoberenaren saria hartzen du 'Txotx' engatik.

'40 ezetz' film laburraren gidoigintza eta zuzendaritza partekatu ondoren, Aupa Etxebeste izan da bi zuzendarien azken lana, ekoizpen osoa euskaraz egin dutelarik. Lan honengatik zuzendaritza berri hoberenara izendatu dituzte Goya sarietan.

SINOPSISIA. Euskal Herri sakoneko sagardotegi batean, zurrut-giroan bildutako lagun taldea ingurune bizigarri hartako ilun aldea ezagutzera doa: aldi berean, sagardo upel eta jangai goxo-goxoen artean, sagardotegiaren familia-jabeak usadioari eta negozioaren iraupenari buruzko eztabaida mahaigaineratzen duelarik.

Zuzendariak: Asier Altuna y Tesmo Esnal

Aktoreak: Pako Sagarzazu, Arantxa Izeta, Kandido Uranga, Anartz Zuzaua, Jose Mari Escobar, Mikel Laskurain, Josu Garmendia

IRAUPENA: 15'

2.- SARABE (1999)



BEATRIZ DE LA VEGA (Altsasua, 1968). Arte Ederretan Lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean. Hainbat filmetan dekorazio-laguntzaile lanetan aritua da: Alex de la Iglesiaren Acción Mutante eta El día de la Bestia edo Santiago Seguraren Torrente, el brazo tonto de la ley filmean.

1995. urtean Emakumeek egindako Zinemaren Nazioarteko saria lortu zuen Madrilén Los Goikoetxea lehen film laburrekin. Sarabe izango da altsasuarraren bigarren film laburra. Gaur egun sorginkeriekin zerikusia duen dokumentala prestatzen ari da.

SINOPSISIA. Martin espetxetik atera da eta bere herrira itzuli nahi du, bere familiari egin dioten bidegabekeria batengatik mendeko hartzeko. Horretarako, bere herriaren etsai den ganadu-lapur talde batekin elkartuko da. Euskal Herrian Erdi Aroan gertatu ziren gatazka eta borroketan gertatzen da.

Zuzendaria: Beatriz de la Vega

Aktoreak: Martin Zabala, Susana Aiestaran, Josetxo Lucas, Txema Nuñez, Kike Zelaia, Patxi Bisquert, Candido Uranga

IRAUPENA: 15'

3.- HARAGIA (1999)



BEGO VICARIO. UPV/EHutik Arte Ederretan lizentziatua, Moskura joan zen errusiera praktikatzeko asmoz eta animazio zinea egiten ikasteko beta suertatu zitzaion. Bueltatutakoan Gasteizko diseinu gunean lehen film laburra egiteko aukera eman zioten, eta horrela jaio zen 'Geroztik ere' izenekoak.

Pare bat urte geroago, Zureganako grina eta Pregunta por mí; azken honengatik 97ko Goya saria eman zioten. 2000an Haragia amaitu zuen eta geroztik ez du beste filmik egiteko beharrik sentitu. Gaur egun Arte Ederren Fakultatean saiatzen da ikasitakoa irakasten eta bertan zein bere seme-alabengan banatzen du energia guztia.

SINOPSISIA. Pelikula egin nuenetik, hau da, Lasa eta Zabalaen gorpuzkinak agertu zirenetik, gauza asko mugitu dira eta, batez ere, lur asko mugitu da, Txile eta Argentinako hilobi komunak, Balkanetan eta Iraken beste hainbeste, eta zer esanik ez, gure gerraren garaiko desagertuak azaltzen ari dira bazter guztietan. Filmean esaten den bezala, hor azpian bizi dira gure maitatuak guztiak norbaitek aurkitu arte, eta planeta osoa dago halakoez josia.

IRAUPENA: 13'

4.- HAUSPO SOINUA (2000)



INAZ FERNANDEZ. Inaz Fernandez Bilbon jaio zen 1969an. Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederrak ikasi ondoren, arlo zinematografikoan izandako prestakuntza Gasteizko ITBZ (CINT) eta Urnietako Sarobeko zine-eskoletan mamitu zuen. TBko eta bideo-klip musikalen errealizadore gisa ere aritu da lanean. Hainbat dira zuzendari edo gidoigile bezala Inaz Fernandezek egindako lanak: Locura, L'object trouvé, Panoli eta Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran, Lehen Saria izan zen Hauspo soinua.

SINOPSISIA. Ustekabeko gertaera bat dela-eta, aita batek bere semea zenbait egunez uzten du aitona-amonen etxean. Bisita honek aita familiaren tradizioekin berrelkartzea eta bilobak mundu ezezagun bat ezagutzea eragingo du.

Zuzendaritza: Inaz Fernandez

Aktoreak: Patxi Ugalde, Iñigo Urkia, Kike Diaz de Rada, Eskarne Aromaa, Unai Azkona

IRAUPENA: 16'

5.- 40 EZETZ (1999)

ASIER ALTUNA & TELMO ESNAL

SINOPSISIA. Idi-dema batean, herri osoak egundoko dirutza handia galduko du onenentzat jotako idi-parearen alde apostu eginda.

Zuzendariak: Asier Altuna y Tesmo Esnal

Aktoreak: Kandido Uranga, Jose Ramon Soroiz, Ane Gabarain, Pako Sagarzazu, Isidoro Fernandez

IRAUPENA: 16'



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



IRVSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisan



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 • GASTEIZ

bonardi
armazoi berriak
38€

Orain Bonardi izan zaitezke zu ere...

ZERBITZU
OPTIKOETAN

1a

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

MARTXOAK 3ko GERTAKARIAK

30 URTE: OROIMENA ETA BORROKA BIZIRIK



30 urte, eta bizirik jarraitzen du Gasteizen 1976ko martxoaren 3an jazo ziren gertakari lazgarrien oroimenak. Egun horretan, Espainiako Poliziak San Frantzisko elizan batzarturik zegoen langileen asanbladari basatiki egin zion tiroka, eta ondorioz bost behargin hil zituen. Pedro Martinez Ocio, Francisco Aznar, Romualdo Barroso, Jose Garcia Castillo eta Bienvenido Perea ziren langileak.

[arg.: edorta sanz]



[edurne begiristain]

30 urte joan dira jada. 30 urte hauetan, baina, ez da inoiz ganorazko ikerketarik egin. Artean ez da inolako akusaturik egon. 30 urte joan dira, bai, baina oraindik ere argitu gabe dago zeintzuk diren gertakizun odoltsu hartako arduradun polizialak eta politikoak. Martxoak 3ko Biktimen Elkartek, ordea, ez du etsi, eta ez du etsiko egia ezagutu eta justizia egin arte. "Gezurra eta desinformazioaren murrua bota arte jarraituko dugu borrokan". Hala mintzatu zaizkigu Andoni Txasko eta Santiago Diaz de Espada elkarteko kideak. Haiekin bildu gara sarraskiaren 30. urteurrenaren harira.



Bienvenido Perea



Francisco Aznar



Jose Garcia Castillo



Pedro M. Mtz. Ocio



Romualdo Barroso

Aurten inoiz baino esanguratsuagoa izango da hilketen erantzukizuna argitzea eta familiei zor zaiena ezagutzea eskatzen duen aldarria. 30 urte pasa dira Euskal Herriko historian odolaren kolorez eta usainez markatuta geratu zen datatik. 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko Biktimen Elkarteko arduradunek bizirik dute oraindik egun hartan jazotakoa. Andoni Txaskok eta Santiago Diaz de Espadak adierazi digute ez dagoela borondate politikorik poliziak Gasteizen hildako bost langileengatik erantzukizunak eskatzeko. Nahiz eta, orduan, Gobernazio ministroa zen eta gaur egun Galiziako PPko buru den Fraga Iribarne zuzendu zituen hilketa haiek. "Estatuan oraindik bizirik daude aurreko erregimeneko botere faktikoak, judizialak, politikoak... eta haiei ez zaie interesatzen gure eskaerei erantzuna ematea, ez dute ezer mugitu nahi", dio Diaz de Espadak.

PP eta PSE-EEren jarrera gaitzetsi dute batez ere elkarteko kideek. Hala, PPK "bere irudia zuritu" baino ez duela egin nahi iritzi dio Txaskok. "Arabako Diputazioak urrezko domina eman nahi zigunean, gertaerak argitu eta epaitzeko eskaera egin zezan

galdegin genion Ramon Rabanera ahaldu nagusiari. Hori egin beharrean bere erantzuna izan zen, dominari uko eginez, Arabako gizarteari muzin egiten geniola. Atera kontuak!". Bestetik, sozialistak terrorismoaren biktima gisa hartzearen aldekoak badira ere, gertaerak argitzeko borondate politikorik ez dutela salatu du Txaskok.

Alde horretatik, elkartekoek ikusi dute beharrezkoa dela martxoak 3ko gertakariak ahalik eta gehien zabaltzea, etorkizuneko belaunaldiak horren berri ere izan dezaten. Horretarako, Euskal Curriculumari ekarpen garrantzitsua egin diote, Gasteizko sarraskiaren historia ikasketa liburuetan jasota gera dadin. Izan ere, Diaz de Espadak dioen moduan, gertakariaren inguruko "egia" ahalik eta gehien hedatu behar zaie belaunaldi berriei, historian benetan jazo zena argiki azalduta gera dadin: "Gasteizko langilearen aurkako Estatu erasoak izan zen, eta gezurra eta desinformazioaren murrua bota arte jarraituko dugu borrokan".

JUSTIZIAKO ATEAK, ITXITA

Borroka hori, baina, ez da samurra izaten ari elkartekoentzat. Izan ere, orain arte justizia alorrean emandako pausoez ez dute emaitzik eman. Bi bide dituzte zabalik une honetan martxoak 3ko Biktimen Elkartekoek. Batetik, Estatu Terrorismoaren biktima gisa onartuak izatea nahi dute, baina ezezko erantzuna jaso dute horretan. Espainiako Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunaren Legea sortu zenean, elkarteko 26 kidek han ere aurkeztea erabaki zuten, lege hark biktima guztiak babestu nahi zituela esaten baitzuten. "Alabaina, hura ekintza terrorista bat ez zela izan esan ziguten, ordena

Lluís Llach-en kontzertua. KANPAI HOTSAK GASTEIZEN

Lluís Llach abeslari kataluniarra **erbestetik bueltatu da duela gutxi**. Francisco Franco diktadorea hilkutxan da dagoeneko. Terrorea ez da amaitu, baina. 1976ko martxoaren 3a da, hiru gazteren hilotzak daude kalean. Laster, bost izango dira hildakoak. Llachen amorrua, tristezia, sentimenduak musika bilakatu dira gau horretan: 'Campanades a morts' (Hil ezkilak) kanta izan zen emaitza. Aurten, martxoaren 3an sarraskiaren 30. urtemugan, atzera ere kantatuko du Llache abestia, biktimen omenez, Gasteizko Buesa Arena pabilioian (gaueko 21:00etan / sarrera 10 euro). Donostiako Orfeoak eta Orkestra sinfoniko batek lagunduta aterako da abeslari kataluniarra taulara. Kontzertua bi zatitan banatuta egongo da. Lehen zatian, Lluís Llache bere kanten bildumaren errepasoa egingo du. Bigarren zatian, berriz, orfeoi eta orkestrarekin batera joko du, eta besteak beste, 'Campanades a morts' eskainiko du.

Gasteizko gertakariaren 30. urtemuga modu berezian aldarrikatu eta zabaldu nahi dute Biktimen elkartekoek. Lortu ere lortuko dute, gainera. Kontzertu hunkigarria izango da, dudarik gabe, Andoni Txaskok azpimarratu duen moduan. Kontzertua jendez gainezka egotea espero dute elkartekoek, eta joateko deia egin diete gasteiztar guztiei.



berreskuratzeko ekintza bat izan zela baizik!!", dio Txaskok.


Helegite bat baino gehiago aurkeztu dizkiote erabaki horri, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak atzera bota dizkiote errekursoak. Haatik, oraindik bide hori erabat itxita ez dagoela, eta zirrikitu txiki bat ikusten diotela aitortu digute elkartekoek. Izan ere, Norma Mentxaka 1976an ultraeskuindar batek Santurtzin hildako emakumeari Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasun legea aplikatu izanak animatu egin ditu elkartekoak bide hori aztertzen jarraitzeko.

Bestetik, gertakarien erantzukizunak argitze aldera, kereila kriminala aurkeztu zuten langileak metrailatu zituzten tropen arduradunen aurka, baina ez zuten onartu, gertakariak preskribituta zeudela, eta gai horren eskumena jurisdikzio militarrek zeukala esan zietelako. Horrela, Espainiako Justizia Administrazioaren bide guztiak agortuta, Nazio Batuen Erakundera jo zuten orain dela urtebete, Giza Eskubideetarako nazioarteko batzordera. Helegitea tramiterako onartu zien erakunde horrek, eta Genevan agerraldia noiz egingo duten zain daude oraindik elkartekoak.

EUROPARA, BABES ESKE

Halako tramiteak astiro doazenez, bien bitartean bestelako urratsak egin nahi ditu European Martxoak 3ko biktimen elkarateak. Estrasburgoko Europako Parlamentura joateko asmoa dute, han gertakarien gaineko ebazpen bat onar dezaten. Halaber, European bira bat egiteko ideia ere badute, giza eskubideen alorrean lan egiten duten talde eta gobernuz kanpoko erakundeekin harremanetan jarri eta haien bitartez Gasteizko gertakariak ahalik eta zabalkunde gehien izatea lortzeko.

Espainia eta Europako bideak ez ezik, Euskal Herrian ere babes eske ibili dira elkartekoak. "Bizkarrekoa eman digute, baina ez dute gehiago egin", salatu du Txaskok. Eusko Legebiltzarreko Biktimen Lan taldean agerraldia egiteko asmoa badute ere, ez dakite aukera izango duten, poliziaren indarkeriak eta erakunde armatuak eragindakoak ez baititu aintzat hartzen. "Etsigarritzat" jo dute Legebiltzarreko lan taldearen jarrera, baina baita EAEko bestelako erakundeetako buruena ere. Hala, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariarekin egindako batzarrak ere fruiturik ez du eman oraino: "Gaia soluziobidean jartzeko konpromisoa hartu zuen, baina orain arte ez du ezer egin".





ERROTA HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

KEN ZAZPI. EÑAUT ELORRIETA, kantaria:

Badugu gogoa Gasteizen jotzeko



Ken Zazpi taldea Gasteiza etorriko da **hilaren 24an** 'Gelditu denbora' bere azken lana aurkeztera. Talde bizkaitarraren akustikoaren birak **Principal antzokian** (20:30ean) izango du leku GEUren eta GAUEKOAKen elkarlanari esker.

[josune veleaz de mendizabal]

Ken Zazpi egitasmoa Jon Mikel Arronategik, Igor Artzanegik, Beñat Sernak, Iñaki Zabaletak, Jon Freskok, Unai Ormaetxeak eta zuk zeuk bidean jarri zenuten 1996an eta ordutik izen handia eskuratu duzue euskal musikan, egun talde entzunenetarikoak izatera lortuz...

Buf! Bai, hamar urte pasa dira ia konturatu gabe... Hamar urte ideia sukaldatzen hasi ginenetik, baina lehen diskoa prestatzen 2000 urtean hasi ginen. Orduan hasi ginen serioago. Guztiok gentozen musika mundutik, baina zalantzarik ez Ken Zazpi guztiok markatu gaituen taldea izan dela, oso barruan daramagun zerbait da eta gainera hasieran sortu genuen berdinok jarraitzen dugu egun. Auskalo etorkizunean non bukatuko dugun, bizitzak buelta asko ematen ditu eta, baina Ken Zazpi gurea hartu dugun taldea da...

Etorkizuna aipatu duzu, zalantzarik ala? Ematen du atzo bertan sorturiko taldea dela Ken Zazpi eta bat-batean lortu duela entzuleria fidela eta ospea. Bidea, ordea, ibiltzen egiten da, ezta?

Kanpotik eta komunikabideetatik agian horrela ikus daiteke, ezerezetik bat-batean

sortzen den taldea dela, baina ez da inolaz ere horrela, eguneroko, hilabetetako eta urtetako lana izan da eta.

Egia ere bada hasieratik harrera beroa egin digutela, lehenengo diskotik, eta hori baloratzen badakigula eta zaintzen dugula. Dena den, etorkizuna landu behar dugun zerbait da eta lan handia egin behar dugula.

Zer-nolako irakurketa egiten duzu hasi zineteneko musika egoeraren eta gaur egungoaren inguruan?

Gu hasi ginenean talde piloak zeuden eta oso onak, baita egun ere. Gainera, gaur teknologiaren emarietatik talde ugari sortu dira, hau da, disko bat grabatzeko ekoizpen propioa erabiltzen da eta argi dago musika ulertzeko beste modu bat sortu dela. Alde honetatik, globalizazioa, top manta, diskoetxeen itxiera, eta abar etorri dira eta egoera honen aurrean ez du balio baloiak kanpora bidaltzeak eta esateak cd-ak oso garestiak direla... Irakurketa egokia egiten jakin beharko genuke, autokritika sakonagoa eta orain arteko euskarriak birplanteatu eta teknologia berriei egokitu.

Eta zuen estiloari eta musika egiteko bideari dagokienez?

Barrura begirako irakurketa egiten... ba, hiru disko eta gero, helduagoak garel

musikari moduan, eta noski, pertsona bezala ere hamar urte eta gero (barreak). Taldeak berak ere eboluzio bat izan du eta sendotuz joan da. Azken finean, ordu asko pasatzen ditugu batera eta hau bizikidetzat da. Esperientziak ahalbidetu du egun inoiz baino hobe egotea barruko erreakzioei dagokienez, eta hori zuzenetan transmititzen dela pentsatzen dut.

Ibilbideari birpasa eginez, 'Atzo da bihar' (2001ean), estreinako lana; 'Bidean' (2003an), estiloaren definitzea; eta 'Gelditu denbora' (2005ean), akustikoa, zuzenaren erreferentzia eta kontsolidatutako taldea... Bat al zatoz?

Lehenengo diskoarekin puntu batera arte apustua egin genuen, bigarrenen pauso bat gehiago eman eta hirugarrenarekin, ordea, aurreko biek funtzionatu zutela ikusita errazago genuen bide horietatik tira egitea, baina soinu berriekin frogatzea erabaki genuen. Zoritzarrez edota zorionez, bietan arrazoiak eman baititzaket, ez gara musikatik bizi eta horrek, lehen diskotik hirugarrenera arte, izugarritzko askatasuna eman digu benetan sinesten dugun horri ekiteko. Filosofia hau taldean oso barrenean dago eta ez dugu sekulan merkatuaren



menpekotasunik izan. Hirugarren disko honekin ez genekien oso ondo zer-nolako erantzuna izango genuen, baina diskoa grabatu eta lasai geratu ginen, hústuta... Argi dago (barre egiten du) kritiko gogorrenak gu garela baina bizitzan bezala erronka berriak bilatu behar dira. Bestetik, egia da akustikoa izanik jende askok galdetu digula ea agurra den, eta inondik inora guk ez dugu horrela planteatu. **'Gelditu denbora'** Garate estudioetan grabatu zenuten azkenean, baina Principal antzokian grabatzeko aukera ere aztertu zenuten, ezta?

Hasieran ez genekien edo estudioan grabatu edo antzokiren batean. Leku ezberdinetan egon ginen aukerak aztertzen eta horien artean Gasteizko antzokian baina gero zerbait intimoagoa nahi genuela erabaki genuen, lagunaren artekoa, alegia. Betidanik gurekin egon diren lagun guztiak nahi genituen disko honetan. Azkenengo urte hauetan jendeak eskaini digun berotasuna jaso nahi genuen diskoan eta hortaz, akustikoaz gain zuzeneko ere izan behar zuela argi genuen..., hala ere, badugu ba gogoia Gasteizen jotzeko.

Gasteizek ere gogoz espero zaituzte...

Demostratuko dugu kriston giro polita sor daitekeela

musikarekin antzoki horretan, eta ondo pasatzea espero dugu giro polita eta euskaldunaren artean. Eta dudarik ez dugu Principalen giro beroa egongo dela. Disko honekin beste bide batzuk ikertzen ari gara, antzokien mundua hain zuzen ere. Aukera izan dugu Euskal Herriko areto garrantzitsuenetan jotzeko eta horien artean Principal Antzokia dago.

Eta giro beroa aipatu duzula, zenbat jende maiteminduko zen Ken Zazpiren kanteekin?

Ez dakit... kar, kar, kar... baina egia da lehenengo diskotik orain arteko jendeak nola abesten duen erabat emozionatzen nauela... Ni kantatzen nago eta kanpotik jendearen ahotsa entzuten da eta hori pasada bat da... Azken finean letrak oso pertsonalak dira eta jendeak bereganatzea eta sentitzea pasada bat da, gauza politenetarikoak.

Ken Zazpi laugarren lan bat prestatzen ari da. Noizko?

Maiatzean azken kontzertuak eman eta gero udara osoan lokalean sartuko gara buru-belarri. Asmoa gabonen osterako kaleratzea da eta egia esan, izugarritzko ilusioarekin gaude. Hirugarren lanak bide eta sonoritate berriak ireki dizkigu eta pilo bat disfrutatzen ari gara. Honek indarra eman digu laugarrenerako.

di-da

>Musika erreferenterik: Leku askotatik edaten dugu, euskal musika da gehien entzuten duguna baina ez bakarra, kanpoko ere interesatzen zaigu, mundu osoko txokoetan egiten dena, alegia.

>Abesti bat: laugarren diskorako egiteko daukagunen bat

>Oroitzapen bat: 2001ean Ken Zazpiren lehendabiziko kontzertua. 10 lagunekin, oso jende gutxi taberna batean, kriston ilusioa... eta orain taldeari begiratzin diot eta indarra ematen dit eta harrotasuna.

>Gustukoen abesten duzun kanta: momentuaren arabera baina egia da letrak idazteak abantaila ematen duela, sinesten ditugun gauzak idazten ditugulako. Gaur momentu honetan "zapalduen olerkia" esango dut, ikusten dudalako Euskal Herrian bizi dugun egoera horrek amorrua eta esperantza sortzen dituela alde berean bat... Horrelako sentimendu nahasia sortzen dit eta kanta horretan hustu egiten naiz.

>Amets bat: alor bakoitzean bat esango nuke... baina agian ametsa berriak sortzeko ahalmena izatea eta aurrera begiratzin beti jakitea.


>Lorak bota zizkizuten azkenengo aldia? Eszenatoki batean eta egia esan, oso-oso lotsatia naiz eta deskontzentratu ere egiten naiz... lotsatu, despistatu eta letra ahaztu zitzaidan...

>Eta horien artean politena? Behin Donostian geundela 'Gelditu denbora' diskoaren promozioan eta izugarritzko ilusioa egin zidan taberna batera sartu, garagardo bat eskatu eta ordaindu orduko tipoak esan zigun tragoa bere kontura zihoala. Zer dela eta? galdetu eta erantzun zuen Ken Zazpi taldeaz gain bestelako taldeak ere gogoko zituela, baina "zuek duzuen jarrera eta konpromisoagatik", esan zuen eta asko gustatu zitzaidan esandakoa.

>Eszenatokia? Irrika, pasioa eta asko irakatsi didan zerbait, oso lotsatia naiz baina eszenatokia beste leku bat hartzen du lotsak, ez dakit hazi egiten naizen edo, baina asko disfrutatzen dut bertan.

Modaren munduan leku bat egitea zeharo zaila eta gogorra da egun, are gehiago Araban, non bertako moda sortzaileak orain dela gutxi hasi diren ezagunak izaten, batik bat, orain dela 4 urte gauzatzen den Modaren Asteari esker. Diseinatzaile hauen artean, Isabel Arroyabe daukagu, egun afizioa dena bizimodu bilakatu nahi duen emakumea, hain zuzen.

[saioa fdz de arangiz]



MODAN LEKUA BILATZEN

Gasteiztarra, 42 urte eta moda sortzailea. Halakoa dugu Isabel Arroyabe, orain dela 12 urte inguru diseinuaren munduan murgildu zen emakumea. Lehen Txairoki (orain M-Class) deitzen zen akademian hasi zen diseinua ikasten, 5 urtez Diseinu eta Patroigintza ikastaroa eginez. "Bertan diseinuak, patroiak eta argazkiak egiten ikasi nuen. Ondoren, gure kabuz hasi ginen desfileak antolatzen, orain dela 4 urte Gasteiz ON-ekin batera Modaren Astea egiten hasi arte", diosku Isabelek.

Egun, tamalez moda ez da bere bizimodu bilakatu, bere esanetan, "oso zaila delako"; halarik ere, ez ditu bere ahaleginak bertan behera utzi eta nahiz eta bulego batean

lan egin, diseinuak egiten jarraitzen du. Horrela, bere diseinuak Gasteizko hainbat dendatan, Artium museoaren dendan eta hilero Alde Zaharrean egiten den merkatuko 'Diseinatzaileen txokoa' (Pintore kalean) aurki ditzakegu. Osagarriak dira nagusi: orratzak, eskularruak, txapelak..., baina denak pertsonalizatuak, gauza arruntekin gauza berriak egiten dituelarik.

Bestelakoak ere ez dira falta: margo berezietz apaindutako kamisetak, eskuz margotutako marrazkiak eta erliebedun oihalez egindako jantziak, esaterako. Guzti-guztiak 'Agurital' markaren pean. "Dendetan saltzen ditudan gauzei Agurital marka jartzen diet, baina desfileak egitean

nire izena ematen dut", argitu du Isabelek.

Izan ere, ibilbide luzea izan da diseinatzaile honena eta asko dira azken urteetan aurrera eraman dituen ekintzak. Besteak beste, Arabako Sortzaile Berrien ekitaldietan parte hartu du 2002 urtetik aurrera, non emakumeentzako zein gizonentzako proposamenak aurkeztu zituen. Estilo minimalista eta kolorez beteriko oihalak aurkeztu zituen 2003ko ekitaldian. 2004ko bilduman, aldiz, tul ehunezko gona gorri-beltzak eta lentejuelaz eta hariz beteriko kamisetak erakutsi zituen. 2005eko martxoan, berri, Arabako Moda Sortzaileen elkarteko kide bihurtu zen.



ISABEL ARROYABE, DISEINATZAILEA

Gasteizko modaren astea:
Martxoak 14-19. Artium museoa

Nolakoak dira diseinatzen dituzun jantziak eta osagarriak?

Estiloa oso sinplea da baina deitalez beteta daude. Hau da, jantzi edo osagarri arruntak hartu eta artile, hari, oihal, ehun edo bestelako materialekin apaintzen ditut. Adibidez, ileko gomekin egindako orratzak, kreamilerez egindako poltsak edo artileekin apaindutako kapelak sortzen ditut. Horrez gain, kamisetak ere diseinatzen ditut, bai eta gona edo prakaren bat ere.

Diseinuarekin zure hurrengo hitzordua Modaren Astean izango da. Nolako proposamenak ikusiko ditugu martxoaren 16ko zure desfilean?

Bai, Sortzaileen egunean izango da eta bertan 6 diseinatzaile arabarrok parte

hartuko dugu. Aurkeztuko dudan bildumaren izena 'Gonak' da eta bertan gizonentzako eta emakumeentzako 6 modelo desberdin erakutsiko ditut, denak gonekin. Beltza eta zilarra izango dira nagusi. Espero dut zuen gustukoa izatea!

Hau egin ondoren, zein da zure asmoa?

Memento, gauza berriak diseinatzen jarraitu eta gehiago saltzea lortzen badut, denda-tailer bat irekitzea gustatuko litzaidake, bertan lan egiteko baina baita gauzak zuzenean saltzeko ere.

Benetan existitzen al da arabar moda?

Baietz esango nuke, egun diseinatzaile asko dago eta. Gainera, orain dela 4 urte abian

jarri zen Modaren Asteari esker, Arabako diseinatzaileak nolabait ezagutzea eman dira eta beraz, ekintza hau guretzat erakusleho ona izan dela uste dut. Bestalde, 20-30 diseinatzaile inguruk Arabako Moda Sortzaileen Elkartearen osatzen dugu eta hainbat proiektu ditugu buruan, esaterako, umeei zuzendutako modatillerra edo modaren inguruko zinemaldia antolatzea. Pixkanaka-pixkanaka gauzak egingo ditugu.

Zure aburuz, nola janzten gara arabarrok?

Egia esan, nahiko aspergarriak eta kontserbadoreak garela esango nuke. Jendea ez da oso ausarta eta hori aldatu beharra dago!

cd-a ...inoiz kontatu ez nizekizunak...

noizean behin taldea | www.noizeanbehin.com | www.baga-biga.com

aurtengo euskadi gaztea-ko maketa lehiaketaren finalisten artean egon

ondoren, noizean behin taldekoek, kalean dute jada euren lehen lana dena: '...inoiz kontatu ez nizekizunak...'

gatikako lau mutil hauen lana 10 abesti metaleroz osatua datorkigu, ahots

melodiko eta sendo batekin, 'baga-biga musika ideiak' zigiluaren eskutik. pasa den urtean grabatu ziren abesti hauek mungia-ko lamina estudioetan, natxo liberty-ren gidaritzapean, eta dagoeneko otsailetik aurrera salgai dago. hemendik aurrera taldea zuzenekoak eskaintzen hasiko zaigu. info@noizeanbehin.com



dvd-a ordenagailurako puzzle teknologikoak

elhuyar.com

gazteei zuzendutako ordenagailurako joko berria sortu du elhuyar fundazioak. 'puzzletek' izeneko dvd honetan, puzzleak izango dituzte gazteek jolasgai, jolasaren bitartez teknologiaren mundua ezagutzeko.

puzzleetan, guztiok ezagutu eta erabiltzen ditugun joko horietan, oinarrituta dago 'puzzletek' dvd-a. 12 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago ordenagailurako joko berri hau, eta bertan, puzzleen bitartez, teknologia eta energiaren mundua ezagutu ahal izango dute jokalariek. izan ere, puzzleak egin ahal, hainbat azalpen jasoko dituzte jokalariek. horixe da, hain zuzen, 'puzzletek' en helburuetako bat: jolasa eta informazioa uztartuz, teknologiaren gaineko jakintzak gazteei helaraztea.

jokalariek 50 puzzle baino gehiago izango dute eskura, eta ez edonolakoak, gainera: biribilak, karratuak, hutsunedunak, trukatzekoak...



zinea agua (water)

drama | kanada - india | iraupena: 114 min. | urtea: 2005
Zuz.: deepa mehta

istorioa 1938an kokatzen da, india kolonialean, mahatma gandhiren garaian.

hinduen sinesmenen arabera, emakume bat ezkontzen denengan, gizonaren erdi bihurtzen da. hau da, gizona hiltzen bada, emaztearen erdia hiltzat hartzen dute.

liburu sakratuek emazteak hiru aukera duela esaten dute: bere senarraren anaiarik gazteenarekin ezkontzea, bere senarrarekin batera erretzea edo oinaze bizitza eramatea.

ezkontza bat ospatzen dute: chuyia (sarala), 8 urteko neskatua, hilzorian dagoen gizon batekin (gau horretan bertan hiltzen da) ezkontzen dute. gizonaren gorpua ibai sakratu baten aldamenean erretzen dute, eta chuyia prest dago berarentzat aukeratu duten bidetara jarraitzeko.

ilea moztzen diote eta alargunentzako 'ashram' batean sartzen dute. hor bere bizitza osoa pasa beharko du...



KOADERNO HANDIA

[txabi arnal gil]



Asko izango dira *Koaderno Handia* tituluko liburua gazteentzat batere egokia ez dela pentsatuko dutenak. Zenbat buru, hainbat aburu! Hala eta guztiz ere, gazte literaturaren helburu nagusietariko bat irakurzaletasuna bultzatzea dela uste dugunoi ez zaigu zalantza-izpirik agertzen: Agota Kristof idazlearen lan bikain honek irakurtzeko grina pizteko baldintza guztiak betetzen ditu.

Koaderno Handia hunkigarria da. Ez du inor edozelan uzten.

Koaderno Handia gogorra eta samurra da, latza eta gozoa, ederra eta gordina, gorria, zuri, horia eta beltza, umoretsua eta tragikoa, zorrotza eta laua, bizia eta zuzena.

Koaderno Handia gaurkotasun handikoa dugu, atenporala. Bi anaia bikik gerrari aurre egiten, gerratik ikasten, gerra zer den ez dakitela, gerraren ondorioak bikain dakizkitela.

Koaderno Handia maisu-lan bat da irakurterraza eta arina izan arren. "Maisu-lan bat irakurterraza eta arina dena? Ezinezkoa!", pentsatuko du batek baino gehiagok. Bigarren aldiz esango dugu: hor konpon!

Koaderno Handia sentimenduz beterik datorkigu.

Koaderno Handia ekintzaz josita dago.

Koaderno Handiaren osagaiak neurrira nahastuta daude.

Eskarne Mujikaren itzulpena bikaina da. Ederra.

Koaderno Handia? *Koaderno Itzela* esango nuke nik. Bi protagonisten amona bezain handia.

Ezinbestekoa.

Koaderno Handia. Agota Kristof. Itzulpena: Eskarne Mujika. Alberdania Argitaletxea, 1999.

eae-ko haur hezkuntzan ikasleen % 64 d ereduan

erabili.com

a ereduak maila guztietako matrikulazioetan ikasleak galdu ditu eta d eredua maila guztietan finkatu da. horixe da euskal estatistika erakundeak, eustat-ek, eae-n 2004-2005 ikasturteari dagokion eskola-jarduerari buruzko estatistika aztertuta ondorioztatu duen datua.

>d eredu nagusi dbh arte


hizkuntza ereduak dagokienaz, araubide orokorreko unibertsitate aurreko ikasketak batera hartuta d eredua da, erabat euskarazkoa alegia, nagusitzen dena. eae-n 2004-2005 ikasturtean haur hezkuntzatik (hh) hasi eta zereginen irakaskuntza bitartean matrikulatu ziren 310.624 ikasleetatik 162.205ek (% 52,5) ikasi zuten d ereduan. a eredu (gaztelania nagusi duena) kokatu zen bigarren tokian, 74.811 (% 24) ikaslerekin, eta b eredu (euskara eta gaztelania parekatuta) hirugarrenean, 71.792ekin (% 23). x eredu, euskararen presentziarik ez duena, 1.816 (% 0,5) ikasle matrikulatu ziren.

lehenengo mailetan, haur hezkuntzan (% 64), lehen hezkuntzan (% 55) eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan (dbh, % 47), d eredu nagusi izan zen egindako matrikulazio guztien artean. aitzitik, batxilergoan, 10 ikasle 100en ikasketak gaztelaniaz egitea erabaki zuten. lanbide heziketan a eredu nagusitu zen joan den ikasturtean, ikasleen % 83arekin; eta soilik ikasleen % 15ak aukeratu zuten d eredu hezkuntzaren esparru horretan.

azken bost urteetan zehar maila ezberdinetan eman diren aldaketak aztertuz gero, honako datuak lortzen ditugu: a ereduak maila guztietako matrikulazioetan ikasleak galdu ditu baina d eredu maila guztietan finkatu da. ondorioz, ikasketak euskaraz egiteko aukera pixkanaka hedatzen ari dela esan dezakegu, eta batez ere hezkuntzako lehenengo mailetan (haur hezkuntza eta lehen hezkuntza) areagotuz doala.

>>ondorengo taula grafikoan ikus daitezke eae-n iazko ikasturtean hizkuntza ereduaren arabera izandako matrikulazio datuak:

Ikasleak hezkuntza maila eta ereduaren arabera. 2004/05 ikasturtea



>>ondorengo koadroan ikus daitezke lurraldekako hizkuntza ereduaren arabera ikasleen banaketa:

	araba	bizkaia	gipuzkoa
guztira	45.249	160.038	105.337
a eredu	16.413	46.661	11.737
b eredu	13.932	35.670	22.190
d eredu	14.904	75.891	71.410

rafa ruedaren lan berria: saredun eskua

jakinduria sakonekoa, gitarrajole fina eta irudimentsua, abeslari sendoa eta ekoizle moduan lan garrantzitsuak zuzendu dituen rafa rueda. 2005ean 'ehungarrenean hamaika' diskoa argitaratu eta zuzenekoak bukatu ondoren, mungia musikaria buru-belarri sartu da bere bakarkako bigarren lana prestatzen. otsailean, azkarateko katarain estudioan aritu da grabazio lanetan. disko berriak, aurrekoaren bideari jarraituz, poparen ildotik konposatutako kantu sorta biltzen ditu 'saredun eskua' izenpean. martxoaren bukaeran kaleratuko da, ondoren zuzeneko aurkezpenetan murgiltzeko. hotsak.com



euskal zine asteak bingen mendizabal saritu du

aurten 22. edizioa burutu duen euskal zine asteak bingen mendizabal omendu nahi izan du. mendizabal gasteiztarak otsailaren 25ean jaso zuen "gutako bat" saria orain arteko ibilbide profesionalagatik, izan ere, hainbat filmetarako musika egiteagatik ezaguna da musikaria, besteak beste. duela hiru urte sortu zuen euskal zine asteako antolakuntzak sari hau eta bingen mendizabalen aurretik txema blasco eta juanma bajo ulloa ere sarituak izan dira.

euskal herrian pobreziaren mugaz azpitik bizi da hiru herritarretik bat

milioi bat lagun inguru pobreziaren mugaren azpitik bizi dira euskal herrian, elkartzen plataformaren arabera. hau da, hiru herritarretik bat pobrea da gurean. kalkulatu hori egiteko, oude ekonomia lankidetzak eta garapenerako nazioarteko erakundearen irizpidea erabili dute. haren arabera, herrialde batek sortzen duen aberastasun osoaren erdia dago pobreziaren muga. hileko 804 eurotan, euskal herrian. Elkartzen-ek dio gizarte eskubideetan eragin behar dela egungo prekarietateari buelta emateko.

puzkarra records disketxe berria martxan da

metak-ek atek itxi, eta puzkarra records-ek zabaldu. gipuzkoako punk-oil mugimendua bultzatu eta hedatu nahi duen zigilu ez komertzial baten moduan definitu daiteke puzkarra records-en funtzionamendua. metak diskoetxea desagertuta, euskal herriko diskogintzarako garai onak ez direla zabaldu den arren, diskoetxe berria sortu dute. sortzeko arazoak hauek dira: talde berriek beren diskoak kaleratzeko orduan dituzten zailtasunetan laguntzea eta euskal herriko kanpora ateratzen laguntzea. eginiko guztia mugimendu eta taldeen alde izango da.

'egunkaria auziko' auzipetzeak berretsi ditu auzitegi nazionalak

espainiako auzitegi nazionalako 2. zigor salak 'egunkaria auzian' auzipetutako zazpi lagun (joan mari torrealde, iñaki uria, pello zubiria, txema auzmendi, martxelo otamendi, xabier oleaga eta xabier alegriaren) abokatuek jarritako dei helegiteak atzera bota eta auzipetzeak berretsi ditu. zigor salak bere egin dituzte auzitegi nazionalako juan de olmo epailearen argudioak eta delitu zantzuak daudela dio.

lauhitzetan

gasteizen tranbia eraikitzeak akordioa sinatu dute



arabako diputazioak, gasteizko udalak eta eusko jaurlaritzak tranbia gasteizen jartzeko akordioa sinatu berri dute. azpiegituraren %65 ordainduko du eusko jaurlaritzak garraio eta lan publikoetarako sailak. bestalde, arabako diputazioak azpiegituraren %17 kitatuko du, eta gasteizko udalak beste %17. lanekin udaberrian hastea espero dute. lehenbiziko fasean, lakua-erdigunea (2.700 metro) eta lakua- adarra (2.300 metro) eraikiko dituzte, guztira 12 geltoki. Ondoren, abetxukoko adarra egingo dute (3.200 metro, zazpi geltoki).

VII. igartza sariaren irabazlea eta akzesita argitaratu dituzte

elkar argitaletxeak bi liburu aurkeztu berri ditu: karmele jaioren 'amaren eskuak', eta peru magdalenaren 'lile'. lehenengoak VII. igartza beka eskuratu zuen, eta bigarrenak akzesita irabazi zuen lehiaketa horretan bertan. 'amaren eskuak' liburua, ama-alaben arteko harremana hartu du gaitzat karmele jaioren gasteiztarrek. jaiok zenbait ipuin-lehiaketa irabazi izan ditu, eta hau da kaleratu duen bigarren liburua. izan ere, aurretik 'hamabost zauri' (elkar) argitaratu zuen. peru magdalenaren proiektuak, beriz, 'lile' dauka izena eta ipuin sorta bat da. magdalena iurretarra da jaiotza, baina durangon bizi da. ingeniaria da lanbidez, baina bertsotan ibili izan da eta hainbat hedabidetarako lanak egin ditu.

pruden gartziak cervantes eta lazarraga elkartu ditu

pruden gartzia idazleak 'lazarraga, ernazimendua euskaraz' liburua kaleratu du, bosgarren juan zelaia saria irabazi zuen lana. bertan, miguel de cervantes eta joan perez lazarraga elkartu ditu idazleak. kixoteren pertsonaia iturria lazarragaren birraitonaren anaia (larraintzargo jauna), erotu zena, izan zitekeela dio ikerlanak. beste ikerketa lerro batek cervantes eta lazarraga madrilen kokatzen ditu urte berean.

ENTZUN! aldizkaria, 10 urte musikaren bidean

80. hamarkadatik datozen aldizkari musikalen ondorengoa da Entzun! aldizkaria. Roge Blascok zuzendutako Muskaria-k eta beranduago sortutako El Tubo-k, euskal musikagintzak garaian behar zuen informazio esparrua bermatu zuten. Aurrekari hauekin, aldizkari euskaldun baten beharra asetu zuen proiektu bat jaio zen 1996an: Entzun!

[maite lekue]

Esan Ozenki-k, Ubeda anaien ideiatik abiatuz, aurrera eraman zuen Euskal Herriko zein kanpoko musikaz informazioa euskaraz eskaintzen zuen aldizkari berria. Formatu arin eta erakargarri batean, elkarrizketa, erreportaje, diskoen kritika, agenda eta abarren bitartez eraikitako kalitatezko produktu bat kaleratu zen. Harrez geroztik, 10 urteko ibilbidea du bere Entzun! aldizkariak, eraldaketen ondorioz proiektu sendoa lortu bitartean. Eta paperezko formatuaz gain, egungo informazio formatu berriek ematen duten aukerak baliatuz www.entzun.com ataria ere eskuragarri dugu.

Informazio musikala euskaraz helarazteko emandako urratsetan zailtasunak bizi izan dira aldizkariaren historian. Horrek, aldiz, egindako lana irmotzea baino ez du lortu, eta dagoeneko 46. alea argitaratzera heldu dira. Etorkizunari begira, aldizkariaren proiektua eta web ataria finkatuta, aldizkariaren hedapena izango dute erronka berria, Euskal Herriko txoko gehiagotara iritsi nahian.

Garai malkartsu baten ondoren, non

arazo ekonomikoak ziren nagusi, 2002ko urritik aitzina garai berriak ireki ziren Eragin enpresaren babesean. Enpresa honen bermeak aldizkariaren sendotasun ekonomikoa ekarri du. Halaber, buruaskitasunaren bidea jorratuz, egunerokoan diru iturri berrien bila dihardute etengabe: banaketa sarea zabalduz, harpidetza bultzatuz, dirulaguntzak lortuz...

Hamar urteotako ibilbidean zehar anitz

pertsona eta elementu aldatu badira ere, aldizkariak hasieran plazaratutako irizpide eta filosofiari eusten die. Besteak beste, euskal musikagintza isladatzea, talde eta bakarlarri independenteak babestea eta estilo aniztasuna suspertzea.

Hemengo eta hango musikaz mintzo 10 urte jada Entzun! aldizkariaren orrialdeetan barrena, hemengo eta munduko doinuak euskaldunon zerbitzura jarritz.



[arg.: entzun!]





XABIER SAGARDIA, ENTZUN ALDIZKARIKO KOORDINATZAILEA

Entzun! aldizkaria, 10 urte euskaraz musika informazioa helarazten. Zein balorazio egiten duzue urtemuga honetan?

10 urtez musika aldizkari espezializatu euskalduna esku artean dugula, eta gaur egun horrek ekarri dituen zailtasunak kontuan hartuz, oso emaitza positibotzat jotzen dugu. Aldizkaria sortu eta bizirik mantendu dutenen lana baloratu egiten dugu, Ubeda anaiak, Aritz Usandizaga 'Sound Sistem'ekoa, eta abar... Esku aldaketa eta garai ezberdinak bizi izan dira aldizkariaren historian, baina kontent egoteko arrazoi ugari daude aldizkariaren hiru garaietan. Horrelako produktu bat ia etenik gabe ateratzea, ez dago gaizki!

Garai ezberdinak, jende anitz eta askotariko formatuak izan dira Entzun!-en ibilbidean. Zeintzuk dira egungo Entzun! aldizkariak dituen ezaugarri nagusiak?

Aldizkaria hartu genuenetik zuen filosofiarekin atxikitu genuen eta berau mantentzea erabaki zen. Lehenik, Euskal musika sustatu eta hemen egiten denaren ispilu izan nahi da asmo hau irakurleei jakinaraziz. Bestetik, arlo independentetik lan asko egiten da, musika undergroundetik diskoetxe txiki eta independenteetara. Multinazionalekin lan egiten duten taldeak ere agertu izan dira, baina gure asmoa oinarrian dauden talde eta bakarlariei buruz mintzatzea da, uste baitugulako interesgarriagoak direla.

Egun Entzun! aldizkaria eta Entzun! ataria proiektuak finkatu dituzue. Zeintzuk dira aurrera begirako proiektuak?

Atariarekin urte luze daramagu eta oso pozik gaude, mugimendua dago sarean, eguneratua mantentzen da eta sarrera anitz jasotzen ditugu. Bai aldizkaria bai webgunea sendotuta daude gaur egun,

beren publikoa badute. Orain gure erronka nagusia proiektua zabaltzea da. Euskal Herrian gehiago ezagutzera eman nahi dugu, aldizkaria hedatu nahi da, eta kalitatea, gure baliabideen neurrian, hobetu nahiko genuke.

Nola ikusten duzu Euskal Herrian egiten den musikaren egoera?

Euskal musikak osasuna du nahiz eta diskogintzak krisia pairatu. Diskoak, orain dela urte batzuk baino gutxiago saltzen dira, hōri egia da baina sormena eta zuzeneko emanaldiak osasuntsu daude. Euskal Herriko talde eta bakarlari asko kalitate handikoak dira. Norberak aukeratu behar du bere gustukoa. Estilo ezberdinetako musika hautatzeko eskaintza zabala dago Euskal Herrian, esparru guztietan punta-puntako musikariak ditugulako.



bitxiak / zilarra / osagarriak

*Prezio ezin hobeak!
Originaltasuna!*

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



gasteiz-londres

[erredakzioa]



✓ **txartela erreserbatzeko:** www.ryanair.com
807220032 - 807220200 / **salneurria:** 14 €

✓ **forondako aireportuan:** ekipajea irteera ordua baino 2 ordu lehenago fakturatzeko aholkatzen du ryanair-ek, beharrezko dokumentazioarekin, artean berrespen zenbakia (confirmation number).

✓ **hegazkineratzea:** irteera-ordua baino 30 inguru lehenago hasten da. aurreikusitako irteera-ordua baino 10 minutu lehenago bukatzen da hegazkineratzea.

✓ **hegazkin-bidaia:** 2 ordu eta 5 minutu. hegazkineko aperitiboak, otorduak eta taberna-zerbitzua ez dira txartelaren prezioan sartzen.

✓ **stanstedeko aireportuan:** londresen, bertan du ryanair-ek bere operazio-gunea.

✓ **stanstedeko aireportutik londresko erdigunera** heltzeko garraio-zerbitzuak daude, behar bezala adierazita:

- trena > stansted express (15 minututan behin irteten da. 45 minutuko bidaia egiten du).
- autobusa > 2 konpainia daude: terravision (liverpool st. stationera zuzenean doa) / national express (victoria stationera, geldialdiak eginez).

✓ **londresko erdigunean:** aipatu 2 autobus geltokietatik metroa (tube) hartu ahal izango duzu, zentrotik zehar mugitzeko erarik

azkarrena eta errazena da; aldi berean, bus tipikoetan ere ibil zaitezke. metroan zein autobusez ibiltzeko, eroso eta merkeena 1 edo 3 egunerako bidaia-txartelak erabiltzea da. azkenik, beti dago taxi bat (cab) hartzeko aukera, baina tarifak nahiko garestiak dira.

✓ **londresko leku aipagarriak:** whitehall eta westminster gunea; houses of parliament (parlamentuko etxeak); big ben; downing street; southbank gunea; london eye; the tate modern gallery; city gunea; saint paul's cathedral; tower bridge; soho gunea-saint james; picadilly circus; buckingham palace; eta bertako museoak, besteak beste.

✓ **aholkuak:**

- euskal herrira deitzeko 0034 aurrezenbakia markatu behar duzu.
- entxufek 3 larako dituzte: tresna elektrikoak erabili nahi izanez gero, egokigailu bat eraman behar da.
- larrialdi handietarako: 999 / mugikorre, 112. londresko polizia (larria ez den zerbaitetarako): 020 7601 2222

✓ **erlajatzeko:**

- londresko pub tipikoak (gomendatzen da: pint-ak (pinta bat garagardo), bere osagarri tipikoak (fish&chips).
- azoka txiki tipikoak: portobello market da ezagunena (notting hill auzoan).

✓ **itzulera:** gasteizera itzultzeko etortzean egindako urrats berberak egin.

aireportuko hiztegia:**heltzean:**

- > passport control (pasaporte-kontrola)
- > arrivals from the european union (europar batasunetiko iritsierak)
- > baggage reclaim area (ekipajea jasotzeko gunea)

joatean:

- > departures (irteera-gunea) > check-in (fakturazio-gunea)
- > boarding gate (hegazkineratze atea)

ERREZETA

BILDOTS NOISSETE-A SALBIA SALTSATAN ETA SASOIKO BARAZKIEKIN

[diocesan-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

> **OSAGAIK:**

Bildots sahiets-aldea	ale 1
Salbia freskoa	3 adartxo
Gurina	150 gr
Berakatz	3 ale
Lekak	100 gr
Azenarioa	2 ale
Porruak	2
Kalabazina	1/2
Jerezeko ardoa	
Demi-glace-a	1/2 l.

PRESTAKETA:

Bildotsa prestatu aurretik igurtzeko

Gurina su motel edo mikrouhinean urtu.

Berakatz aleak 160° C.-tan erre labeaz azal eta guzti, erabat bigundu arte.

Salbia hosto pare bat, xehe-xehe txikitu labanaz.

Berakatz aleak zuritu ondoren, sardeska baten bitartez ondo txikitu, eta

gurin eta salbia txikituarekin nahastu, eta utzi hozkailuan ordu erdiz hozten.

Bildotsa

Sahiets-aldeari hezurak kendu eta ondo garbitu, ahal den txukunen utziz.

Honen barrualdea aurretik prestatutakoarekin ondo igurtzi, gatz pixka bat bota, eta bere bueltan bildu, zilindro baten eran. Lotu pieza sokarekin eta gorde.

Barazkiak

Leka eta azenarioak, juliana eran zatitu; kalabazina, aldiz, tomeatu; ondoren, denak banan-banan gazitutako ur irakinetan egosi, azkenik ur hoztetan freskatzeko. Saiatu barazkiak gehiegi ez egosten.

Salbia saltsa

Gaineratiko salbia eta Jerezeko ardo basokada bat, jarri su moteletan gutxitzen.


Gehitu demi-glace-a, eta utzi gutxitzen saltsa apur bat sendotu arte. Bukatzeko gurin apur batekin loditu.

Plateraren amaiera

Noisette-a gatzaz eta piperraz ondu, eta su bizitan ondo gorritu alde guztietatik. Ondoren 180 °C.-tan amaitu labeaz. Soka kendu eta xerratan zatitu. Barazkiak gurin apur batean salteatu ondoren plateraren erdian jarri, hauen gainean bildotsa, eta salsa pixka bat gehitu gainetik, salbia hosto batzuekin apainduaz.



[cristina fernandez blanco]



SANTIAGO ORTIZ ALDAI, ANA
TXABARRI FERNANDEZ ETA JONE ORTIZ
TXABARRI (GASTEIZ):

"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA
HISTORIAN ZEHAR?" (III)

Kojonian, badirudi lehenengo alean Gorka del Pozori eta gero Agueda Zelaia ihardesteko asmoz hemen plazaratu genuena jendea gustatzen zaiola. Tira, ba, jarrai dezagun, Jone tipiak Arabako herri izen aldaketa historikoei buruz gehiago jakin dezan.

Horrela, egungo "Escota" tokia "Haizcoeta" idatzi zuten duela mila urte. "Gaceta" tokiak ez zuen harremanik prentsarekin, gatzarekin baizik, "Gazzaheta" baitzen, abandonatu zen "Gazaeta" herri zaharraren gisa. "Gamarra Menor" herria, bere aldetik, "Gamarra guchia" zen 1257. urtean. "Gorostiza" herri basamortuak ere aldaera bat du, hagitzez berantiarragoa, "Gorostizar" baita 1821. urtean idatzi zena.

Notarioek, bertzaldetik, "Gordoa" ezaguna ia "Cordoba" bihurtu zuten, Iruñea ondoko "Cordovilla" oroitarazten duena, ziurrenik lehenagoko "Gordobil" estaltzen duena. "Larrauri" herri galdua bezala, 1258an "La Rahur" bihurtu nahi zutena. Gehiagorik? Konforme, baina ez orain Jonettu, hurrengoan izanen.

CODEX CALIXTINUS (ETA III)

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Aurrekoan egin nuenaz bezainbatean, egun ere Aymerid Picaud izeneko gizon petralaren albistea, orduko euskal populu nahiz izaeraren aitzinean nabarmendu zitzaigun gaizto horren berri eman nahi dizut, baina kasu honetan gure hizkuntzaz erran zuena hurbildu nahian, zer arraio, horretan behintzat zeredozer zentzuzkoa isuri zuela ikus dezagun.

Honela dio: "Barbara enim lingua penitus habentur, Deum vocant Urcia, Dei genitricem Andrea Maria, panem orgui, vinum ardim, carnem aragui, piscem araign, domun echea, dominum domus iaona, dominam andrea, ecclesiam elicera, presbiterum belaterra, quod interpretatur pulcra terra, trictium gari, aquam uric, regen ereguia, sanctum Jacobum Jaona domne Jacue".

Gurean, honelako zerbaiz ulertzen ahal dugu: "(euskaldunek) erabat barbaroa den hizkuntza

dute. Jaungoikoari "urcia" diote, Jaungoikoaren amari "Andrea Maria", ogiari "orgui", ardoari "ardum", haragiari "aragui", arrainari "araign", etxeari "echea", etxeko jaunari "iaona", etxeko andreari "andrea", elizari "elicera", apezari "belaterra", lur ederra erran nahi duena, gariari "gari", urari "uric", erregeari "ereguia", Santiagori "Jaona done Jacue".

Eta, ez pentsa, hamaika astakeria gehiago erran zuen gure arbasoei buruz, koordinada beretsuetan kokaturik, euskaldunak tontoak zirela, lizunak, hiltzaileak eta bertze. Hobe horrela uztea eta hurrengoan gaia aldatzea. Edonola ere, eta bera ohartu gabe, gure euskara maitiaren berri eman zuen eta, itxura denez, nahikoa ongi. Hainbat adituren arabera, kasu, hitz horiek Lizarrerriko Erriberan edo jaso zituen, Ebrotik hurbil, Arabako hegoekialdeko mugetan...



[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari
euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko
aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

LAS VULPES:

"Errebelde izaten jarraitzen dugu"

edurne begiristain

Gainera, Lupe bateria jotzaile ohia omendu nahi izan dute disko honekin. Betiko lau neskei (Mamen Rodrigo abeslari eta baxu jotzailea, Loles Vazquez gitarrista, Bego Astigarraga baxu jotzailea eta Marta Aldama bateria jotzailea), Joakin Gonzalez gitarrista gehitu zaie. Bego eta Lolesekin elkartu gara Las Vulpesen itzuleraz solasteko.

Hogeita bi urteren ostean, nolatan erabaki duzue berriro elkartu eta disko bat argitaratzea?

Bego- Duela bi urte hildako Luperi omenaldia egitea bururatu zitzaion Lolesi, eta heriotzaren urtemugan kontzertua eskaintzea erabaki genuen, Bilbon. Helburu horrekin bildu ginen, eta zenbait kanta moldatu behar izan genituenez, pentsatu genuen aukera ona izan-zitekeela ordura arte grabatu gabe utzitako kantak disko batean biltzea. Izan ere, bakarrik bi kanta

genituen grabatuta, eta erabaki genuen disko bat ateratzea, eta gerorako zerbait uztea.

Disko honekin behin betiko agur esango duzue?

Bego- Bai, betiko. Etapa baten bukaera da.

22 urte izan dira musikan aritu gabe. Erronka handia izan da zuentzat atzera ere instrumentoa hartu, mikroaren aurrera jarri, eta diskoa grabatzea? Nola bizi izan duzue?

Bego- Ez dakizu zuk ongi! kar, kar!!!

Loles- Nahiko gogorra izan da, egia esan. Norberak bere bizitza propioa du, amak gara, eta batez ere Bego eta niri izugarri kostatu zaigu. Baina ilusioz egin dugu eta gustura geratu gara. Berez behar zena baino denbora gehiago erabili dugu...

Bego- Bai, ze nahikoa zaila izan da uztartzea bizitza erritmo desberdinak entseiekin. Gainera, Mamenek musikarekin duen esperientzia falta zaigu gu bioi eta apur bat gehiago kostatu zaigu erritmoari heltzea. Horregatik zaila izan da guretzat, ahalegin handia izan da.

Publikoak nola hartuko du Las Vulpesen buelta? Horrenbeste urteren ostean jarraitzaileen gustuak aldatu direla uste duzue?

Bego- Denetarik egongo dela uste dut. Batzuek ez dute gustuko izango, Las Vulpesen irudi mitifikatu bat dagoelako. Baina, lehen Las Vulpes horren gustuko ez zuen jendea egongo da, egindako moldaketa txikiekin eta gustorago entzungo duena.

Loles- Gure belaunaldiko jendeak gustuko

izango duela uste dut, ulertuko duela. Gauza bera gertatu da La Pollarekin, eta gero Evaristok egin duenarekin. Ez da musika bera, baina hasierako jarraitzaileek begi onez hartu dute.

Euskal Herriko lehen emakumezko punk talde izan zineten, eta Espainia mailako aurrenetarikoa. Nola gogoratzen dituzue hasiera horiek?

Bego- Gazteak ginen, martxa gustuko genuen,... erritmo bizian bizi ginen!! kar kar!

Loles- Asko dibertitzen ginen lokalera entseiatzera joaten ginenean, koadrila baten moduan ibiltzen ginen... Gero, hortik parranda egitera joaten ginen, hori zen gure eguneroko bizitza.

Bego-...bai, horrela ibiltzen ginen gertatu zena gertatu arte!!

Hori galdetu behar nizuen... Me gusta ser una zorra kantarekin polemika izugarria sortu zelako.

Bego- TVEko Caja de Ritmos saioan gure emanaldia atera zutenean, hortik astebetera ABC egunkariak portadan atera zuen "neska talde batek kanta lizun bat kantatu zuela telebistan". Kristona montatu zen, familia katolikoek elkarrekin protestak egin zituen, komunikabideetara gutunak heltzen hasi ziren... Alianza Popular alderdikoek ongi baliatu zuten egoera, PSOEren aurka jotzeko. Estatuko Fiskal Nagusiak kereila bat aurkeztu zuen gure aurka, eta Carlos Tena telebista saioa zuzendariaren aurka. Ondorioz, Tena TVEtik bota zuten. Tena arriskatu egin zen, zentsurarik gabe atera baitzuen gure kanta, eta postua galdu zuen. Guri, ordea, izugarrizko bultzada eman zigun.

Loles- Bultzada arraroa izan zen. Gauzak



Duela hogeita bi urte desagertu zen Las Vulpes taldea. *Me gusta ser una zorra* abesti polemikoa TVEn eman eta gutxira. 2003an elkartu ziren berriro, eta pare bat kontzertu eman zituzten, eta orduan otu zitzaien diskoa kaleratzeko ideia. Ordura arte grabatu gabeko kantak bildu dituzte *Me gusta ser lanean* (Oihuka).

azkenean bere onetik atera zirelako, eta inork ez gintuelako behar bezala ulertzen.

Polemika horrek kalte bainoago, mesede egin zizuela esan daiteke...

Bego- Ez, ez,... ez zigun inolako mesederik egin.

Loles- Geure buruak manipulaturik ikusten genituen.

Bego- Sartu nahi ez genuen munduan sartu gintuzten. Eta ez geunden ez musikalki, ezta psikologikoki ere horretarako prestatuta. Neskato gazte batzuk ginen eta mundu horrek ez zuen interesik guretzat.

Loles- Gainera, sekula ez ziguten sosik eman diskoagatik, sekula ez genuen ezer kobratu, eta denek engainatu egin gintuzten.

Bego- Dena oso azkar pasa zen. Azkarregi. Goia jo eta segituan behera egin genuen.

Polemika horren ondorioz banatzea erabaki zenuten, beraz.

Loles- Bai. Egoerari eustea ezinezkoa egiten zitzaigun, eta ez genuen rolo hori gustuko

Bego- Egonkortasuna galdu genuen, gure artean haserreak sortu ziren. Ilusioa galdu genuen.



bego, ezkerrean, eta loles, las vulpes taldeko kideak gasteizko alde zaharrean

Denbora asko pasa da, eta denbora ez da alferrik pasatzen inoizentzat. Zuek zertan aldatu zarete?

Bego- Bizitza eta gizartea ulertzeko modua, ikuspuntua, hori ez dugu aldatu. Errebeldeak izaten jarraitzen dugu

Loles- Bai, hala da. Alde bakarra da orain bizipen batzuk baditugula, eta ziurrenik ez litzazukeela gauza bera gertatuko.

Zuek akaso ez, baina punk mundua aldatu, aldatu da, eta jada ez da lehen zena.

Loles- Bai, aldatu da. Orain gazteek aukera askoz gehiago dituzte musikan sartzeko. Lehen baino musikari askoz hobeak daude, eta erritmo berriak sortu egiten dituzte. Eta, beraz, ez dute punk soila egiten, guk bezala.

Bego- Orain gazteek erreferente asko dituzte. Guk, ordea, Erresuma Batuko, edo AEBetako punk rocka kenduta, ez genuen eredurik. Lehen Gaztetxeak baino ez zeuden, eta orain, kontzertuak emateko toki asko eta asko daude Euskal Herrian.

[arg.: edorta sanz]

TORTURA EUSKAL HERRIAN UNAI ROMANO:

"%100 berresten dut tortura deklarazioa"

"Torturaren makineria ondo doala erakusten du honek".
Guardia Zibilaren esku bortizki torturatua izan zen Unai
Romano gazte gasteiztarraren hitzak dira horiek,
Madrilgo Lurralde Auzitegiak torturengatik jarritako
salaketaren artxibatzea berretsi eta gero.

[edurne begiristain]

Hori gutxi balitz bezala, Guardia Zibilak "testigantza faltsuagatik" salaketa jarri dió Romanori. Gasteizko gazteak, nola ez, saminduta, haserre, amorratuta hartu du albiste. Baina inoiz baino ozenago salatu du torturak pairatu zituela Guardia Zibilaren esku inkomunikatuta egon zenean: "%100 berresten dut nire tortura deklarazioa, ez dut pauso bat bera ere atzera emango. Hau da guardia zibilek 2001eko irailean utzi zidaten aurpegia. 2001eko irailean torturatua izan nintzen".

SALAKETAREN ARTXIBATZEA...

Euskal Herrian azken urte luzeetan izandako tortura testigantzetatik, Unai Romano gasteiztarrarena izan da hedatuenetakoa. Romanoren aurpegi handitu eta ubelduaren irudia betirako geratuko da Euskal Herriko historiaren

memorian, tamalez. Duela bost urte atxilotu zuen Guardia Zibilak Unai Romano, ETaren aurka eginiko operazio zabal baten baitan. Inkomunikatuta egun bat bete baino lehen ospitalera eraman zuten, eta inkomunikatuta espetxeratu. Ostean, torturengatik salaketa jarri zuen gazteak. Salaketaren oinarria zen Guardia Zibilak emaniko kolpe ugariren ondorioa zela buruan zuen lesioa. Guardia Zibilak, ostera, gazteak bere burua paretaren aurka kolpatu zuela argudiatu zuen. Madrilgo 25. Instrukzio Epaitegiak gaztearen salaketa artxibatzea erabaki zuen, Guardia Zibilaren bertsioa hobetsiz. Salaketaren artxibatzeari salaketa jarri zioten Romanoren abokatuek. Alabaina, Madrilgo Lurralde Auzitegiak helegitea atzera botatzea erabaki zuen iragan urtarilaren 16an. Gaztearen testigantzatik haratago, salaketa frogatzeko

zantzurik ez dela ebatzi du, eta ikerketarekin segitzeko, "salaketari sinesgarritasuna eman ahal dioten gutxieneko zantzuak" egon behar dutela dio.

... GUARDIA ZIBILAREN SALAKETA...

Auzitegiak salaketaren artxibatzea berrestearekin batera, Guardia Zibilak salaketa jarri berri du Romanoren aurka. Guardia Zibilak lau delitu leporatzen dizkio gazteari, bere salaketan. Batetik, testigantza faltsua egitea: Romanok azaldutakoak gezurra direla dio Guardia Zibilak, eta hala baieztatzen dutela mediku txostenek ere. Bigarrenik, eta horren ondorioz, gazteak jarritako salaketa faltsua dela dio Guardia Zibilak, eta delitua leporatzen dio. Hirugarrenik, ETari laguntzea egozten dio, torturak jasan izana salatuz, "ETak eginiko eskuliburuan" aipatzen

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

*Confecciones
Pinedo*
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

Dalvez
argitarazleak

diez de oleno kalea, 22 -behea
telefonoa: 652 77 65 09 faxa: 945 24 52 69
www.dalvez.com info@dalvez.com



diseinu grafikoa
maketazioa

liburuak
aldizkariak
afixak
katalogoak

6.000 torturatu Euskal Herrian

Unai Romanorena, ezagunenetarikoa izanagatik, ez da tortura kasu bakarra Euskal Herrian. TATEk emandako datuen arabera, azken 25 urteotan 6.000 euskal herritar baino gehiagok salatu dituzte torturak. Iaz, zehazki, 51 tortura salaketa izan ziren. Torturaren Aurkako Taldeak ohartarazi du torturarekin amaitzeko, gutxienez, bi neurri hartzea ezinbestekoa dela: Inkomunikazioa eta Auzitegi Nazionala bertan behera uztea.



diren irizpideak jarraitu dituelako. Eta laugarrenez, eta azkenik, dokumentuak faltsutzea leporatzen dio Romanori, auziaren instrukzioan gehitu zen gaztearen lantokiko entzumen froga faltsutu duela dio.

... ETA, "HAU DA GUARDIA ZIBILEK UTZI ZIDATEN AURPEGIA"

"Ikaragarria" iruditu zaio Unai Romanori paperak "nola aldatu diren" ikustea, orain akusatua bera bihurtu baita. Haserre

mintzatu zen duela aste batzuk gazte gasteiztarra bere tortura salaketa artxibatu dutelako, eta Guardia Zibilak bere aurkako eginbideak hasi dituelako. "Hau da Guardia Zibilak utzi zidan aurpegia", adierazi zuen, Guardia Zibilaren esku egon ondoren zeukan aurpegi desitxuratuaren argazkia eskutan zuela. Gazte gasteiztarrek "%100" berretsi zuen egindako tortura salaketa: "Guardia zibilek atxilotu, inkomunikatu eta torturatzen gaituzte; auzi-medikuek gertatzen dena estaltzen dute; Auzitegi

Nazionalako epaileek salatzen duzuna gezurtatzen dute; salaketa jarritz gero, Instrukzio epaileak artxibatu egiten du, eta, gainera, kasu honetan salaketa torturatuaren aurka abiatzen da", gaineratu zuen. Hori horrela, Espainiako Auzitegi Konstituzionalean babes helegitea aurkeztu du Romanok. Han artxiboa berretsiz gero, Europara joko duela esan du, Giza Eskubideen Epaitegira.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



>kultur errota

>>diaporama: naiorbitarra, milioi bat kilometro lur azaletik (josu iztueta) iraupena: ordubete

"1980an autobus zahar batekin abiatu ginen Tolosatik Keniako hiriburua Nairobi, hiru hilabetez Afrika zeharkatu eta han geratu zen betiko Donostiatic Hondarribiara linea egiten zuen autobus hura.

1982an mudantza kamioi zahar bat hartu eta "etxe ibiltari" bat prestatu genuen eta Afrikako iparraldean eta Europan zehar ibili ginen, itsasontziz Kanadara bidali arte. 1989tik 2002 urtera arte Alaskatik Ushuaiaraino eta Ozeano Baretik Atlantikoraino bideak eta herriak zeharkatu ditugu.

Bien bitartean Europan batetik bestera mugitzeko beste autobus zahar bat izan dugu... Gure bizitza erdia munduan barrena ibili ondoren iaz gure traste zaharrak "jubilatatu" behar izan genituen!" martxoak 21, asteartea gasteizko parral tabernan, 20.30ean



kenzazpi



>kontzertu akustikoa: ken zazpi, 'gelditu denbora'

>>geu elkarte & gauekoak
martxoak 24, ostirala
principal antzokian, 20:30ean

sarrera: 12 euro (besaulkia) / 6 euro (1. eta 2. anfiteatroak)
30 urte baino gutxiagokoentzat %50eko deskontua

BAGAREN (KUTXI 62)

ELKARTE GASTRONOMIKO BAT EGIN NAHI DUGU.

JADANIK 25 PERTSONA PREST GAUDE (Dirua jarrita),
BESTE 10 BEHAR DITUGU, ANIMA ZAITEZ!

ZENBAT ORDAINDU BEHAR DA?

- DIRU SARRERA (2006) ----- 2.611 euro
- HILABETERO (MAILEGUA+KUOTA) ----- 38 euro
- DIRU SARRERA (2008) ----- 1.548 euro

INFORMA ZAITEZ! 616943172

ba
ga
re
euskal
tokia

>gasteizko irakurle kluba / 06

>>martxoaren 30a, osteguna

Primo Levi, Sistema periodikoa, Alberdania 1998 [1975]

dinamizatzailea: iban zaldúa
lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13)
ordua: 20:00

>>maiatzean mintzagai izango den liburua:

Xabier Montoia, 'Hilen bizimoldea' trilogia: Hezur gabeko hilak, Blackout eta Elekrika, Susa 1999 eta 2004



>GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDAREN BERRIPAPERA HILERO JASO NAHI?

BIDALI GEUGASTE@GRN.ES HELBIDERA ZURE MAILA, "GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA JASO NAHI DUT" ADIERAZIZ.



>geu gasteiz mendi-taldea (geurekin mendira) / 06

>>martxoaren 19an
Peñablanca, Trekua (1265 m), Leziza (1350 m)

egun osoko ibilaldia
arduraduna: Joseba 945200973
irteera guztiak: Lovaina plazatik / goizeko 9.00etan

>kangeuroak

kangeuro gisa aritu nahi baduzu emaguru zure izena eta telefonoa, eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es
aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.
ostiral, larunbat eta igandeetan Berrbizne Urzelai-652711705

>iragarkitxoak

• argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. emailta profesionala, modu onean. tfnoa: 617242660 / e-maila: zapore@euskalnet.net

• ikastolen elkarteak aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu uztailean egingo diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako. beharrezkoa: euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelese edo frantsesa menderatzea (udaleku horien kasuan). izena emateko aalberdi@bie.ikastola.net-era idatzi edo 94 4354340 zenbakira deitu (amaia)

>film laburren emanaldia

>>geu elkarte & topagunea
martxoak 15, asteazkena,
hikaateneoa (pintore kalea, 13), 20:00etan

TXOTX	(Asier Altuna eta Telmo Esnal)	15'
SARABE	(Beatriz de la Vega)	15'
HARAGIA	(Begoña Vicario)	13'
HAUSPO SOINUA	(Inaz Fernandez)	16'
40 EZETZ	(Asier Altuna eta Telmo Esnal)	16'



GEU

www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugaste@grn.es | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | azaleko argazkia: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: edurne begiristain, estitxu breñas, azitri | maketa: dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: xabier olaso, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, olatz zabaleta, koldo ortiz de ginea, eta gamarrako ostalaritza eskola. | publikitate: aldizkari batzordea eta edurne begiristain | sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

MARTXOAK 3, data bat baino zerbait gehiago

[koldo ortiz de ginea]

Gertakizun historiko bat azpimarratu nahi dugunean lehen eta geroa markatzen duela esaten dugu. Hori da, hain zuzen ere, martxoak 3 izan zena. Ikus dezagun bere eragina; lehenengo irakasgaia da martxoak 3koaren indarrak denbora historikoa bitan banatu zuela, aro berri bat ekinez. Horrek lehenaldiarekin mozketa bat dagoela adierazten digu eta eten honek eremu guztiak baldintzatu zituen: politikoak, herrikoiak eta pertsonalak.

Martxoak 3k estatu espainarraren erreformaren egiazko sena begi-bistan utzi zuen, bereziki krudela gure herriarekin. Fragak bere ohiko krudelkeriarekin adierazi zuen: "Gasteizko irakasgaiarekin ikasi ez duenak, berak ikusiko du zer egiten duen... behin betiko ekonomiko eta sozialki aberri handi bat egingo dugu... hori da aberriak behar duena, aberriak exijitzen duena, eta hori da izango duguna, modu onean ala txarrean".

Ezustean baina kuriaz beteta Arabak, Gasteiz bitartez, gure herriaren askatasunaren borrokaren aitzindaritzat hartu zuen. Herriko borrokaren tamainuagatik harrituta, ustezko beraienaren herrialde batean, beste behin Gasteizko sektorerik erreakzionarioenek bat egin zuten gure askatasuna eta eskubideak ukatzen dizkigutenekin. Mozketa horrek pertsona askorengan kontzientzia sozial eta nazionala piztu zuen; horrela, gertakizun horrengatik estatuaren benetako izaera zein zen ikusi egin zen, bertako klase gidaria

jite naturala agertaraziz; aldi berean, jendeak jakin izan zuen nortzuk ziren lagun naturalak eta nortzuk egiazko etsaiak.



Baina ondoen erakusten duen, lehen eta gero, denboraldi berri horren egia azken 30 urteetako ibilaldia da. Edozein gertakizunen sena, martxoak 3 izan zena, bada bere desagerpena sortu bezain pronto, baina egia ere bada ez dugula bakarrik geratu behar galeraren sentimenduarekin, gerarazgarri gerta daiteke eta. Egia da gertakizun hori guk nahi baino lehenago joan zela, hutsune

larri bezain betegabea utziz une berezi horiek bizi izan genituenon artean. Izan ere, une haietan jendeak norberaren onena ematen zuen eguneroko txanpona bilakatuz: elkartasuna; justizia, askatasuna eta berdintasuna; anaitasunaren sentimendua; demokrazia zuzena eta asanblearioa; arlo herriko desberdinen batasuna; kurai, adorea eta jendearen deliberamendua; etab. Beti pentsatu egin behar dugu edozein borroka bidezko zio batengatik denean ondorio mugaezinak eta kontaezinak produzitzen dituela, ikusgarri batzuk eta ikusezin bestek, irauten eta iraungo dutenak gure pentsamendua joan daitekeenaz landa. Baina denboraren poderioz, ondorio kontaezin horiek gauzatzen dituztenak dira beren koherentzia eta engaiamenduarekin martxoaren 3koari borroka herriko eta nazionalaren zentzua ematen diotenak; horiek gabe honezkero desagertuak izango bailirateke. Horregatik, zenbaitek gertakizun laugarri haiek bizi izan dituztenak ahanzarazi nahi dituzte, faltsukeriaz betetako eta pozoinutako omenaldi batean, Fragaren lagunek ixilarazi nahi izan zituzten bezala.

Pertsona eta talde hauek beren fideltasunarekin (oroimenaren bertuteak ahazten utzi ez duguna, gure bizitzan lehen eta geroa markatu zuena), bertute horien guztien etengabeko adibidea dira eta martxoak 3 herri mugimendua data singularra bihurtzen dute.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



diseinu grafikoa

maketazioa

Dalvez

argitarazleak

liburuak aldizkariak afixak katalogoak



diaz de olano kalea, 22 -behea
telefonoa: 652 77 65 09
faxes: 945 24 52 69
info@dalvez.com

www.dalvez.com

> geu aldizkariko harpidedun, ba al duzu lagunik gure harpidedun izan daitekeena eta oraindik ez dena?
PASAIOZU, ORDUAN, TXARTEL HAU BETE DEZAN, ETA GURI BIDALI posta arruntaz edo mailez

> geu aldizkariko irakurle, kioskoan erosten duzu GEU eta hilerio etxera bidaltzea nahiago?
BETE EZAZU, ORDUAN, TXARTEL HAU, ETA GURI BIDALI posta arruntaz edo mailez



geu aldizkariko harpideduna izan nahi dut

> izen-abizenak: _____

> helbidea: _____ > telef zk.: _____

> hiria-herria / posta-kodea: _____ > herrialdea: _____

> kontu korrontearen 20 dijitoak + titularraren izen-abizenak: _____

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

harpidedun egin eta opari bat jasoko duzue etxean!!!

www.geugasteiz.com

Geu aldizkaria
Pedro asua kalea-2-3.a l 01008 gasteiz
945222153



- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

ARGIBIDEAK ETA ESKARIAK.

ekar

